

talaia
gogoetarako gunea

4. alea
2018ko
apirila

Burujobetza elikatzekeo tresna

Jokin Zaldunbide • Silvia Federici • Andoni García Arriola
Mari Carmen García Bueno • Alazne Intxauspe Elola • Panpi Olaizola
Labore • Ereindajan • Errigora • Errekaleor
Leo Belaustegi Alberdi • Iolanda Formoso Antizar • Maite Goienetxe

“Inork gizartea aldatu nahi badu, aukera ezin hobea daukagu egunero hiru aldiz: gosaltzerakoan, bazkaltzerakoan eta afaltzerakoan”

Vandana Shiva

Talaiaren 4. alea duzu esku artean. Gogoetarako gunea da guretzat Talai. Argitalpen bat ez ezik, hausnarketa eta eztabaida esparru fisiko ere bada. LAB-eko Ekintza Sozialeko aparatuek eta Ipar Hegoa Fundazioak gogoeta eta formazio politiko eta sozialerako egiten dizugun eskaintza izan nahi du eta tarteka halako argitalpenak izango dituzue eskura, baina baita mintegiak eta elkartruckerako espazio fisikoak ere.

Norabide horretan, bitarteko berri bat ireki genuen aurreko atalarekin, eta oraingoan ere eskuragarri egongo da: Ikasgela Birtuala. LAB sindikatura afiliatutako edonork www.iparhegoa.eus webgunetik ikasgelara sartu eta hemendik aurrera Talai bakoitzarekin zabalduko dugun ikastaroan dagokion gaiari buruzko material osagarria, hausnarketarako ariketak zein eztabaida-guneak izango ditugu eskuragarri.

Ale honi dagokionez, burujabe izan edo etorkizuna izan nahi duen edozein herrirentzako funtsezko gaia landu nahi izan dugu: elikadura burujabetza. Azken urteotan bolo-bolo dabilen gaia da, baina ez da gutxiagorako! Lurren eta

uren arpilaketa, supermerkatuetako apalak betetzen dituzten planetaren beste puntatik ekarritako elikagaiak, bizirauteko bertako ekoizleen ezintasunak, sasoikotasunari buruzko ezjakintasuna, hazien pribatizazioa, produktu kimikoak, elikagaien industria sei enpresaren esku egotea, elikagaien banaketa desorekatua eta elikadura duinerako eskubidearen urraketa, guzti honek eragindako kutsadura, gaixotasunak... Zorionez, azken urteetan guzti horri aurrera egiteko mugimendu ugari antolatu, bestelako kontsumo ohitura batzuen arabera bizitzeko proiektuak sortu eta kontzientzia etengabe hedatzen joan da. Guzti hau laburki ukitu nahi izan dugu Talai honetan. Kapitalismo heteropatriarkalak elikagaien kontura egiten duen negozioa aztertuko dugu ikuspegi desberdinetatik Jokin Zaldunbide, Silvia Federici eta Andoni Garciaekin. Arazoren dimentsioa hartuta, Alazne Intxauspek agroekologiaren beharraz hitz egingo digu. Elikadura burujabetza egi bihurtzeko lanean dabiltzan eragile desberdinak ezagutuko ditugu ondoren, eta eurekin hausnartzeko tarte hartuko dugu. Azkenik, LAB sindikatuak gai honi lotuta irekita dituen fronteak ezagutuko ditugu hiru kideren eskutik.

En este número de Talai analizaremos un tema de vital importancia para cualquier pueblo que quiera ser soberano, o que simplemente quiera tener futuro. Es un tema complejo y con muchas miradas, pero intentaremos tocarlos por encima todos para entenderlo mejor. Empezaremos nuestro camino analizando desde diferentes ángulos el negocio que hace el capitalismo a costa de la alimentación junto a Jokin Zaldunbide, Silvia Federici y Andoni

García. Alazne Intxauspe nos hablará después de la importancia de la agroecología como herramienta para construir soberanía alimentaria. Continuaremos conversando con diferentes proyectos que han comenzado a construir alternativas a este modelo de consumo, y nos despediremos dando a conocer los diferentes frentes que tiene abiertos el sindicato LAB en torno a este tema de la mano de algunos de sus protagonistas.



Aldizkari honen edukiak Creative Commons-Aitortu-Partekatu berdin lizentzia baten pean daude.

Lizentzia honekin, edukiak kopiatu, banatu eta erakutsi zein lan eratorriak egin ahal izango dituzu, beti ere ondorengo balditzak betez:

- Edukiaren jatorrizko egilea aipatu behar duzu.
- Edukiaren aldaketarik egiten baduzu, edo lan eratorri bat sortzen baduzu eta hau banatzen baduzu, honako lizentzia honen baldintza beretan egin beharko duzu.

Los contenidos de esta publicación están bajo licencia Creative Commons - Reconocimiento - Compartir igual.

Con esta licencia eres libre de compartir, copiar y redistribuir el material así como de crear trabajos adaptados, siempre bajo las siguientes condiciones:

- Debes reconocer adecuadamente la autoría.
- Si creas un trabajo derivado, debes difundir las contribuciones bajo la misma licencia que el original.

3



Jokin Zaldunbide

6



Silvia Federici

9



Andoni Garcia Arriola

12



Mari Carmen García Bueno

15



Alazne Intxauspe Elola

18



Panpi Olaizola

21



Elikadura Burujabetzara bidea... bere barrenetatik

28



Leo Belaustegi Alberdi

18



Iolanda Formoso Antizar

31



Maite Goienetxe



Jokin Zaldunbide Ekoizlea

Agroekologia, elikadura burujabetzaren bidean

AMAP TARNOS (amap-tarnos.fr)

JOKIN ZALDUNBIDE (Donibane Lohitzune, 1976). Senda belar ekoizlea da Arbonan eta senda-belarren munduan interesa duten hainbat pertsonen osatutako “Belagileak” kolektiboan parte hartzen du, xiberutarrez sorginei deitzeko hitzarekin jolastuz. Horrez gain, Euskal Herriko laborari eta herritar agroekologikoak batzen dituen EHKO kolektiboan dabil burubelarri. Besteak beste, EHKO agroekologiaren identifikatzaile herrikoia sortu eta etxaldeen mapa osatzen dabilta.

Galdera oso sakonak dakarzki elikadura burujabetzaren gogoetak. Planteamendu oso filosofikoa da azken finean, gure zibilizazio antolaketa galdezketatzen duena. Gaur egun posible ahal ote da elikadura arloan osoki autonomoa izatea? Hirigune erraldoi horien hornitzeko nahikoak ote dira inguruetako lurrak eta laborantza ekoizpenak? Galderak lerrokatzen ahal dira eta egia erran bada nahiko goibel izateko gaur egungo zenbakiei errepasso bat egiteko mementoan.

Munduan ekoizten dugun janariaren erdia zakarrontzira doa. 2050an munduko populakuntzaren emendaketaren iragarpenekin, laborantza produkzioa ehuneko 70az beharko ditaike emendatu. Gaur egun, ekoiztiak diren zerealen erdia abereen alimentaziorako zuzentzen da. Laborantza bizki kutsakorra da eta berotegi efektua eragiten duten gas isurketen ehuneko 30a eragiten du. Eta zer pentsa laborantzako ekoizpen batzu finantza munduko espekulazioan sartzen direlarik?

Ez dugu hemen laborantza industrialaren auzia eginen, jakin badakigulako gure kontsumoa zein kaltegarria den gure planetarako, eta laborantza sistema lehen lerroan kokatzen da. Bigarren mundu gerratik, landa martxan ezarri diren laborantza politikak oso kaltegarriak direla nabarmena da. **Argi dago hurrengo belaunaldiei leku bizi-garri bat utzi nahi baldin badiegu gure bizi antolaketak arraberritze bat behar duela, gure kontsumo ohituren aldaketa erradikal bat, naturarekin konposatzeko behar bat.**

Aterabide konkretu bat jalgitzen ari da azken hamarkada hauetan laborantzaren sabeletik: Agroekologia, Laborantza eta ekologia uztartzen dituen kontzeptua. Nazio Batuen Fondo Alimentarioak dio Agroekologiaren bidez planeta osoa elikatzen ahal dela... Bai, bai, planeta osoa.

Ikerketa eta lan oparoa egin izan da munduan zehar agroekologiaren eragina aztertzeko. Lan horietan azpimarratzen ahal dugu Olivier de Schutter-ek egin-dako lana. 2011an Nazio Batuetan aurkeztu duen txosten batean, agroekologiak laborantza industrialaren performantzak gainditzen ahal dituela azpimarratzen du.

Eta zein dira laborantza industriaren parean agroekologiak ezartzen dituen «armak»? Zuhaitzak, insektoak, landareak, arrainak, ura, abereak, humanoak ...

Agroekologia modu zabalean esperimentatua izan den lurraldetan bi elementu nagusi agertzen dira : biodibertsitatearen babestearen beharra eta biodibertsitatea eskasean dagoelarik huren introduzitzea. Huna beraz **agroekologiaren gako batzu**: kultura dibertsoak landatu, abereen presentzia bermatu, agrobasogintza sustatu, arrainak erabili, polinizatzaileak, insektoak, lurraren organsimoak, ura errekuperatu, eta abar luze bat ...

Joan gaitezen hirugarren mundura, itxaropena handik etorriko baitzaigu segurrenik! Eman ditzagun adibide konkretuak: Kenian, «erreputzio-atrakzio» deitu metodo bat martxan ezarri dute laborariak, heien kulturak erasotzen zizuten insektoen ekiditeko. *Desmodium* deitu landare erreputzioa landatu dute arto landen artean eta hortik hurbil, bazterrean «Napier» deitu landare erakar-garriak landatu dituzte. Napier landare horrek kola gisako substantzia bat sekretatzen du. Hara joko, *Desmodium*-ek insektoak desbideratu eta Napier-ek insektoak harrapatu. Ez da urrunago joan behar! 10.000 etxaldetan eremana izan da «erreputzio-atrakzio» metodo hori eta emaitza biziki onak ukan dituzte... Insektizida tanta bakar bat erabili gabe.

Keniatik Japoniara... Japonian, laborari batzu ohartu dira irrisa kulturako guneetan arrainak eta ahateak

2050an munduko populakuntzaren emendaketaren iragarpenekin, laborantza produkzioa ehuneko 70az beharko ditaie emendatu.

Aterabide konkretu bat jalgitzen ari da azken hamarkada hauetan laborantzaren sabeletik: Agroekologia.

Baten batek irrifarra ukanen du ezpainetan zuhaitza ala ahate batek gure kimika industriaren pareko emaitzak lortzen ahal dituztela ikusiz, baina hala da...

Ausardia eskatu behar diegu gure hautetsi ala zinegotziei, laborantzaren galdera eztabaiden erdi-erdian ezartzeko.

pestizidak bezain eraginkorrak zirela parasitoen aurka egiteko. Ahateek, kulturentzat kaltegarriak diren insektoak jaten dituzte emeki emeki eta horrez gain, kultura arteko belarrak kentzen dituzte. Eta oraindik gehiago, ahateen kaka erabil-tzen dute ongarrigisa beren lurrendako. Sistema hori Txina, India eta Filipinetako eremu aintzetan baliatzen dute eta emaitzak hor dira! Ekoizpena ehuneko 20az emendatu baitira gune batzuetan. Eta hor ere kimika izpirik ez.

Hurrengo adibidean, zuhaitza bat da protagonista: *Faidherbia albida*. *Faidherbia albida* akazia motako zuhaitza bat da Afrikan erabilia dena nagusiki. Laborantzan hain onuragarria den Nitrogenoa harrapatzeko gaitasuna du. Hostoek aireko nitrogenoa harrapatu eta behin lurrerat erortzean lurrari integratua da... Simple sinpleki. Eta horrez gain, Afrikan eurien sasoina agertzen delarik hostoak erortzen zaizkio... Beraz, konkurentziarik ez landatuak diren kulturentzat. Artoarekin aintz erabilia da *Faidherbia albida* eta hor ere emaitza adierazgarriak: Zambian, adibidez, artoaren ekoizpena hirukoiztu da hektaraka, 1,3 tonatik 4 tonara pasatuz.

Beste adibide aintz dakarzi Olivier de Schutter-en txostenak. Zuhaitza landaketa masiboak, hesien erabilpena, ura errekuperatzeko sistemak, abereen integratzea (behiak, zerriak, hegaztiak, arrainak...) eta aldi guziz ber emaitzak: kanpotik etorritako produktoen desagertzen progresiboa, errekurtsuen babestea, ekoizpenen emendaketa, autonomia eragitea...

Eta oraindik urrunago joaiten dira agroekologia esperimentatu duten lurraldeetako emaitzetan, eta harrigarria baldin bada ere, laborantza politika zehatz bezain argi bat martxan ezartzea gomendatzen dute: **etxalde ttipi autonomoak garatu behar dira geroz eta gehiago, erresilienteak, bertako**

jendeentzat ekoitziko duten etxaldeak, elikadura burujabetza bateraino iristeko.

Espero halako txostenak ez direla zahartzen egonen Nazio Batuen apala zoko batean... Gaur egun Europak eta Estatu Batuek nagusiki diruztatzen duten laborantza eredutik oso urruti gabiltza. Agroekologiak elikadura burujabetza dakarrela ez da berri ona lobi haundientzat ezta?

Aitortu beharra dago agroekologia hirugarren munduan, okzidental munduan baino erreskiago zabaltzen dela, lurreko lanari lotua baita oraindik gehiago bat. Baten batek irrifarra ukainen du ezpainetan zuhaitza ala ahate batek gure kimika industriaren pareko emaitzak lortzen ahal dituztela ikusiz, baina hala da... Adibide horiekin huntitzen dugu Agroekologiaren funtsa. Naturarekin jokatzeko eta konposatzeko saiakera bat da, eta baldintzak ez baldin badira ere berdinak Euskal Herrian, saiakera hortan gabiltza besteak beste EHKO kolektiboan.

Konbentzituak gara hortan behar dela eman indarra, **laborantza herrikoia bultzatzea, etxalde ttipi autonomoak biderkatzea, laborantza lurrak zaintzea, eskualdeka autonomia ttipien eraikitzea** eta nolaz ez elikadura burujabetza bati buruz joaitea.

Ez da erronka ttipia. Agintari politikoak prest ote dira finantza eta komertzio mundu huntarik jalgi nahi duen laborantza eredu baten sustengatzeko? Autonomoak izan nahi duten ttipi guz horien laguntzeko? Gure elikatze ohiturak aldatuko dituzten ereduaren martxan ezartzeko? Erran ohi da jaten duguna garena... ba ikusi zer jaten dugun gaur egun...

Ausardia eskatu behar diegu gure hautetsi ala zinegotziei, laborantzaren galdera eztabaiden erdi-erdian ezar-



tzeko. Eta ausardia ukan zuten 2014an Frantziako alkatetza hauteskundeetan Albi hiriko agintariek adierazi zutelarik 2020 urtera iritsi baino lehen, elikadura burujabetza plan orokor bat martxan ezarriko zutela. Albi hiriak 51.000 biztanle kondatzen ditu, eta halako adierazpen batek «lur jota» utzi zituen hainbat agintari Frantzian. Laster izanen dute bilan baten egiteko mementoa, eta kritika ainitz egitekoak dira seguruenik, baina ez diegu kentzen ahal behingotz, hitz horien entzuteak inarrosaldi eder bat eragin zuela Frantzia osoan zehar.

Hortan bego, nota koloretsu batekin amaitzeko, huna hemen Agroekologiaren filosofia ongi azaltzen duen irri-istorioa:

Enpresaburu batek arrantzale bat gurrutzatzen du itsas bazterrean, jarririk eta itsasoari begira.

- **Enpresaburua:** «gehiago arrantzatuz, diru gehiago irabaziko du!»
- **Arrantzalea:** «zer egiteko?»
- **Enpresaburua:** «Beste itsasontzi baten erosteko!»
- **Arrantzalea:** «Zer egiteko?»
- **Enpresaburua:** «Ba diru gehiagoren irabazteko, koño!»
- **Arrantzalea:** «Zer egiteko?»
- **Enpresaburua,** pittin bat nazkatu: «Ba pausa hartzeko eta lasai bizitzeko, rekoño!!!»
- **Arrantzalea:** «Zer uste duzu egiten ari naizela? Horixe bera!»

Agroekologia... irria da. ■



Silvia Federici
Militante Feminista

Mujeres, capitalismo y políticas alimentarias

REVISTA CULTURAL KALÓS

A sí como las hambrunas, la malnutrición y el envenenamiento de aguas y tierras por insumos agrícolas químicos reflejan los peligros que la capitalización e industrialización de la agricultura suponen para nuestra supervivencia, un paso crucial en la lucha por el control sobre la producción de alimentos, es reconocer la dimensión de género de la crisis alimentaria a la que nos enfrentamos. Me refiero al hecho de que no solo son las mujeres a lo largo de todo el mundo las que comen las últimas y mueren de hambre cuando no hay suficiente comida para sus comunidades, sino que la escasez y la toxicidad de la comida están estrechamente vinculadas con la negación del acceso a la tierra a las mujeres, y con la guerra abierta contra la producción de agricultura de subsistencia de las mujeres. En otras palabras, hay un estrecha relación entre la degradación de la producción de comida y la restricción de los derechos y el acceso a los recursos naturales de las mujeres, cuando son ellas aquellas que tienen el mayor interés directo en garantizar la seguridad de

SILVIA FEDERICI (Parma, 1942).

Es sin duda una de las teóricas que más han aportado incorporando el punto de vista feminista al análisis marxista, y evidenciando la imprescindible y necesaria alianza entre marxismo y feminismo. Sus últimas obras publicadas en Euskal Herria son “Kaliban eta sorgina” (Elkar, 2017) y “Soldataren patriarkatua” (Katakarak, 2017). Lejos de quedarse solo en la aportación teórica, ha participado en diversos movimientos feministas autónomos (Soldatak Etxeko Langileentzat) o movimientos sociales como Occupy.

los alimentos que consumimos, siendo las responsables de la reproducción de sus familias y de las consecuencias de la malnutrición y de la contaminación de nuestra comida y de los suministros de agua. Esto implica que la lucha por la “soberanía alimentaria” debe darse en diferentes niveles, en reconocimiento de los diferentes roles que los miembros de la comunidad cumplen en relación a la agricultura y la producción de alimentos, y los efectos devastadores de las relaciones de género.

La exclusión de las mujeres del acceso a la tierra y su marginalización en la producción agrícola puede rastrearse hasta los comienzos del desarrollo capitalista y de la colonización. Antes del advenimiento de capitalismo, las mujeres eran las principales productoras de alimentos del mundo. En África, tenían sus propios sistemas de cultivo y cosecha, fuente de una cultura femenina propia. En las comunidades indígenas de América del Sur, las mujeres estaban a cargo de la selección de semillas, una operación

crucial para la prosperidad de la comunidad y cuyo conocimiento se transmitía de generación en generación. También en Europa, antes de la Edad Media, las mujeres tenían derechos de uso sobre la tierra y los "comunes"- madera, estanques, campos de pastoreo- que eran una fuente importante de sustento y cuyo mantenimiento se garantizaba mediante el trabajo colectivo.

El desarrollo capitalista transformó la situación. Con la privatización de la tierra y la expansión de las relaciones monetarias, se desarrolló una división de los trabajos más profunda que separaba la producción de comida para el mercado, cada vez más en manos de los hombres, de la producción de alimentos para consumo directo, ahora feminizado y devaluado. También en las colonias, los hombres fueron señalados como jefes de la producción agrícola, mientras que las mujeres fueron relegadas al rango de "ayudantes", "mano de campo" o trabajadoras domésticas.

En la África colonial, por ejemplo, los oficiales franceses e ingleses favorecerían sistemáticamente a los hombres en cuanto a las asignaciones de tierra, equipamiento y aprendizaje, siendo la mecanización de la agricultura una ocasión para ahondar en la marginación de las labores agrícolas de las mujeres. De la misma manera, entorpecieron los cultivos femeninos obligando a las mujeres a trabajar en plantaciones coloniales, o a asistir a sus maridos en cultivos industriales, alterando así las relaciones de poder entre mujeres y hombres e instigando nuevos conflictos entre ellos. A día de hoy, el sistema colonial, mediante el cual los títulos de tierra se entregan sólo a hombres, sigue siendo la norma para las "agencias de desarrollo", y no solo en África.

Sin embargo, en muchas partes del mundo (sobre todo en África), más del

Un paso crucial en la lucha por el control sobre la producción de alimentos, es reconocer la dimensión de género de la crisis alimentaria a la que nos enfrentamos.

Más del %60 de los alimentos que consumimos siguen siendo cultivados por mujeres en pequeñas parcelas de tierra.

La exclusión de las mujeres del acceso a la tierra supone la pérdida de un gran cúmulo de conocimientos, prácticas y técnicas.

La lucha de las mujeres por el control sobre la producción de alimentos es una única lucha global, que aspira a una transformación social amplia.

%60 de los alimentos que consumimos siguen siendo cultivados por mujeres en pequeñas parcelas de tierra, muchas veces fincas públicas o privadas en desuso. En los informes del Banco Mundial este tipo de agricultura es denigrado y culpabilizado de la pobreza rural. Pero esa no es la realidad. **Es gracias a la agricultura de subsistencia de las mujeres que millones de personas han podido sobrevivir frente a la liberalización económica y la imposición de una brutal austeridad y programas de devaluación monetaria que han dejado poblaciones enteras prácticamente en la miseria.** No obstante, esta capacidad para producir comida para consumo propio está amenazada por el cambio hacia la producción agraria orientada a la exportación que se expande en los países del Tercer Mundo, denominada como agricultura de "gran valor" por el Banco Mundial, y por los constantes acaparamientos y movimientos de tierra de las corporaciones transnacionales, destinadas a proyectos mineros, plantaciones de bio-combustible, varios tipos de monocultivos... justificados en nombre de pagar deudas externas. Además de eso, la producción de subsistencia se encuentra minada por la privatización de tierras mediante títulos individuales – títulos normalmente recibidos por hombres "cabeza de familia", una política que los habilita a ellos para decidir qué cultivar, o a vender la tierra si quieren.

Como la tierra que no se encuentra en manos de las corporaciones o en proyectos de desarrollo de los gobiernos es cada vez más escasa, las mujeres también están sujetas a procesos todavía más excluyentes por parte de sus parientes masculinos y miembros de la comunidad, de manera que sus derechos a la tierra son cada vez más reducidos.

La desaparición de la producción a pequeña escala de las mujeres es una gran amenaza para la producción de ali-

mentos y el consumo de estos para grandes segmentos de la población mundial. Como describe poderosamente Vandana Shiva en *Staying Alive* (1988), la **exclusión de las mujeres del acceso a la tierra supone la pérdida de un gran cúmulo de conocimientos, prácticas y técnicas que durante siglos han salvaguardado la integridad de la tierra** y supone perder la fertilidad y el valor nutricional de la comida, con severas consecuencias sobre la cantidad y calidad de la comida que tenemos disponible.

Esto deja en evidencia la importancia y urgencia de la agricultura de subsistencia de las mujeres y la lucha por la soberanía alimentaria, la cual es la mejor defensa contra la escasez, la difusión de los productos agrícolas genéticamente modificados, la escalada en los precios de los alimentos... Existe una creciente preocupación ya que además de que la comida sea una mercancía para la exportación, se está convirtiendo también en objeto de especulación financiera.

En este contexto, la batalla principal de las mujeres es por el acceso a la tierra y las aguas que corren por ella. Así, en este momento hay campañas lideradas por grupos y asociaciones de mujeres en marcha en América del Sur y en África, exigiendo que los derechos sobre la tierra de las mujeres sean garantizados en las leyes y constituciones de sus países. **Las mujeres también están en primera línea de frente en la lucha contra los tratados de libre comercio, por la reclamación de la tierra, los bancos de semillas o la agricultura urbana** En muchas ciudades africanas, desde Accra a Kinshasa, se han apoderado de parcelas de tierra en desuso para cultivar maíz criollo, yuca y pimientas, cambiando así el paisaje de las ciudades africanas, aportando alimento y sustento monetario a sus familias, a la par que impulsan su independencia económica tanto de los hombres como del mercado.



La lucha para reclamar la tierra y el control sobre la producción de alimentos no se libra solo en el terreno de la agricultura. La lucha de las mujeres por la reclamación de las zonas costeras destruidas por la acuicultura es igual de fuerte. Durante las dos últimas décadas hemos sido testigos del **aumento de la presencia de las mujeres en el movimiento pesquero** desafiando las actividades industriales de arrastre que están vaciando los mares y arruinando las comunidades pesqueras.

Una clave no menos importante en la lucha sobre la producción de alimentos es la movilización de las mujeres contra la violencia ejercida contra ellas, no sólo por agentes de las corporaciones transnacionales, sino a menudo por los hombres de sus propias comunidades, que favorecen modelos de producción fuertemente dependientes de insumos tecnológicos y monocultivos, o refuerzan normas tradicionales que las excluyen de heredar la tierra y participar en las decisiones que afectan a la gestión y al cultivo.

En este sentido, la lucha de las mujeres por la producción de alimentos ha ido más allá del concepto de "soberanía alimentaria" que (como definió originalmente Vía Campesina) reivindica el derecho de los pueblos a definir y proteger su producción de comida y cultu-

ra. Como se define en la práctica de los movimientos indígenas y de las mujeres campesinas, especialmente en América del Sur, la lucha de las mujeres por el control sobre la producción de alimentos es **una única lucha global**, que aspira a una transformación social amplia, luchando no solo contra Monsanto y Cargills, o contra sus semillas Terminator, o los proyectos de desarrollo de la agricultura del Banco Mundial, sino contra las instituciones capitalistas y patriarcales que ven la tierra, el agua y las vidas de las personas como meros medios para la acumulación de capital, indiferentes al hambre y al empobrecimiento, y para quien la comida, el agua o los cuerpos de las mujeres no son más que productos que poner en venta.

Con esta visión hoy en día los movimientos de mujeres campesinas están ganando presencia a lo largo del mundo, están uniéndose en las zonas urbanas o rurales, trascendiendo fronteras nacionales. El problema al que se enfrentan al construir un movimiento de masas, es que **ambiar la mentalidad de los productores no es suficiente a menos que también se transformen los hábitos de compra y consumo de alimentos**. Esto implica que los movimientos por el control sobre la producción de alimentos deben arraigarse en movimientos más amplios, haciendo referencia a todos los aspectos de nuestras vidas. Al mismo tiempo, estas luchas tienen implicaciones que van mucho más allá de la calidad de la comida en sí misma. Porque una agricultura capaz de garantizar alimentos seguros y nutritivos, y procesos de decisión igualitarios, también es una agricultura respetuosa con la biodiversidad, la tierra, los animales, el paisaje y la gente que vive en el territorio y consume esa comida. Como dice Mariarosa Dalla Costa, para millones de personas, es la única alternativa frente al empobrecimiento, la migración forzosa y la extinción tanto cultural como física. ■



Andoni García Arriola
EHNE-Bizkaia exekutibako kidea

MME eta Merkataritza Askeko Itunak: euren eragina Euskal Herriko nekazaritzan

Europako, eta beraz, Euskal Herriko nekazaritzan politika neoliberaletaranzko trantsizioa hasi zen 1.992an, une horretan garatzen ari ziren GATT Negoziazio Errondei (aurrerago Munduko Merkataritza Elkarteari bide emango zioten horiexek) egokitutako lehenengo EBko Nekazaritza Politika Bateratua onartu zenetik.

Negoziazio hauetan, parte hartzen zebiltzan estatuetan elikagaien ekoizpenaren balioa nazioarteko merkatuek zehaztutakoa izatea erabaki zen, ekoizpen eredu, elikadura beharrian, elikadura-kultura zein munduko gune bakoitzean ekoizpen kostuen aldagai desberdinak aintzat hartu gabe. Horrela, elikadurak oinarritzko eskubidea izateari utzi zion, merkatuetan indartsuenak diren horientzako negozio bilakatu.

ANDONI GARCÍA ARRIOLA
 (Karrantza, 1962). EHNE-Bizkaiko Exekutibako kidea eta sindikatu honen izenean hartzen du parte Vía Campesina Europako Koordinazio Batzordean.

Horrez gain, COAJ-en exekutibako kide ere bada, baita Ekintza Sindikaleko arduraduna eta Europako Batzorde Ekonomiko eta Sozialeko partaidea ere.

Herrialde aberatsek euren elikadura merkatuak ireki zituzten arantzelak murriztu edo deuseztatu, baina euren nekazaritza propioa finantzatzeko eskubidea mantendu zuten. Are gehiago, urte askotan zehar esportazioei itzulpenak (diru-laguntzak) egiten esportatu ahal izan zuten, nekazari txiki eta ertainen kontrako eta tokian tokiko elikadura merkatuen kontrako mundu mailako *dumping* bat eginez.

Ondorioak aurreikusita zeuden: Europan, NPB-ren bidez barne-merkatuak desarautu dira, pertsona ekoizle eta kontsumitzaileen kaltetan industriari eta birbanatzaileei botere handiagoa eman; esplotazioen tamainaren araberako laguntza zuzenen bidez bultzatu da ekoizpena; eta prezio baxuetan esportatzen jarraitu izan da diru-itzulpenek lagunduta eta pertsona ekoizleei

ekoizpen kostuak ez ordaintzearen kontura. Bai Europan, bai esportazio horiek porturatzen ziren munduko edozein tokitan ere, nekazaritza sektorearen birmoldaketa izugarria eta nekazaritza eredu sozial, sostengarria eta baserritarren suntsiketa eragin duen kanpo eta barne *dumping* oso bat.

Gaur egun, politika neoliberalak nekazaritza sektorearen erlojua eta esplotazioen desagertzea markatzen jarraitzen dute: 2003 urtetik 2013ra, Europan 4 milioi nekazari desagertu ziren. Ekoizpena planetako puntu jakin batzuetan pilatzea, lurren metaketa eta gehiegizko ustiapena, baliabide naturalen pribatizazioa, nekazari berauek erabiltzeko eskubidea galtzea, lan esplotazioa, ekoizpenaren deslokalizazioa, eta guzti horren eskutik, landa eremuetako ekonomiaren galera, herriak hustea, biztanleria galera eta migrazioak politika neoliberalen eta merkataritza askeko itunen ondorio larriak dira.

Eta Euskal Herrian? Gure nekazaritza ereduak oraindik ere baserritarrak ditu oinarrian. Hori bai, ez da garatutako politiken ondorio izan, baserritarren euren beraien erresistentziaren ondorioz baik.

Hego Euskal Herrian, esplotazio txikiak desagertzera kondetuak izan ziren gure administrazioek lehiakortasun kontzeptu faltsua baliatuta. "Lehiakortasuna" sektorea nekazaritza/abeltzaintza eredu aldatzeko presionatzeko baliatzen zen, baita *modernitatea* ere, betiere berau garapen, produktibitatearen hazkunde, monolabore... bezala ulertuta.

Baserriek, ekoizpenean dibertsifikatuak, buruaskiak, gure herrietako ekonomiaren eragileak, eskala txikian ekoizpenaren eraldaketarako gune edo merkatu tradizionalak, urte luzetan ez dute gure administrazioen politiketan tokirik izan. Sektorearen birmoldaketa

eta baserritarren galera izugarria izan da. Esne-sektorearen, adibidez, azken 20 urteetan esplotazioen %80 baino gehiago galdu da.

Agroelikadura industria eta eskala handiko ekoizpena helburu gisa kokatzeko planteamendua erabateko porrota izan zen. Ekoizpen eredu aldaketak, esplotazioen tamainak, ezin izan zuen sektorea uzten zuten baserritarren galera konpentsatu: oso argi geratzen da behi-esnearen sektorean. Gainera, purinak bezalako ingurugiro arazoak sortu zituen eta sortzen dituen ekoizpen honek nazioarteko merkatuekiko menpekotasun handiagoa eragiten du (esaterako, abereak elikatze sojarekikoa) eta ekoizpen kostuen eta prezioen eze-

Elikadurak oinarritzko eskubidea izateari utziz, merkatuetan indartsuenak diren horientzako negozio bilakatuz.

Esplotazio txikiak desagertzera kondetuak izan ziren gure administrazioek lehiakortasun kontzeptu faltsua baliatuta.

Esne-sektorearen, adibidez, azken 20 urteetan esplotazioen %80 baino gehiago galdu da.

gonkortasunaren ondorioz, ahuldade handiagoa.

ITUN BERRIAK: TTIP, CETA, MERCOSUR, ZELANDA BERRIA, MEXIKO, JAPONIA

Azken bi urteetan, Merkataritza "Askeko" Itunen Negoziazio Agenda bizkortzen zela ikusi ahal izan dugu, Europar Batasuna negoziazioak gidatzen eragile zoroa izan delarik. Presa horiekin, lasterketa horretan, Europako Batzordeak ez die EB-ko hiritarrei galdetu nahi izan, ezta negoziazioen edukien inguruan informatu ere ez, sekretuak izan baitira.

EB eta AEB-n arteko TTIP-aren negoziazioa, une honetan Trump presidentearen aginduz geldiarazia, asko alda liteke Europar Batasunak atzera egiteko eduki dezakeen prestutasunaren arabera. Itun honek haraindikotasun handi eta larria du, nazioarteko merkatuetako bi potentzia indartsuenen arteko akordioa den heinean, mundu mailako merkataritzaren arauak zehaztuko ditu eta.

Europar Batasunak CETA itxi zuen Kanadarekin, eta dagoeneko berau aztertu edo ezer aldatzeko tarterik ez zegoenean egin zuen publiko. Europara egiten diren okela inportazioak direla eta, **abeltzaintza sektorean eragin handia izango du**, 55.000 Tm behi-haragi eta 75.000 Tm txerri-haragi inportatzen baitira, baina baita Kanadako ekoizpen ereduagatik ere, bertan hormonen, antibiotikoen, OGM-en... erabilera baimenduta dagoelako. Hitzarmenak Europako araudiak bete behar direla argi uzten badu ere, ez dago halako haragairik ez sartzeko inongo bermerik.

Jatorri-deiturak ere kaltetzen ditu, Europan Batasunean existitzen diren 1564 deituretatik, 174 bakarrik sartu dira eta. Euskal Herrikoetatik ardoarenak bakarrik sartzten dira, eta horrek arazo handiak sor ditzake, sartzten

ez diren deiturak (Idiazabal gazta, esaterako) Kanadan edozein industriari marka komertzial gisa erabil ditzakeelako.

Mercosur eta Europar Batasunaren arteko ituna adostekoa da abiadura hartu duen beste negoziazio bat: Batzordeak Argentina eta Brasileko gobernu-aldaketak probestu nahi ditu. Hitzarmen honen ondorioak ere, batez ere abeltzaintzan nabaritu dira. Animalien pieza zehatz batzuen 75.000 Tm behi-haragi inportatuko lirateke, 2.000.000 behi inude ingururen baliokidea. Horrek izugarriko inpaktua edukiko du Europako abeltzaintza estentsiboarengan, eta oso modu agerikoan Euskal Herrikoarengan.

Itun berri hauek politika neoliberalen sakontzen dute, edozein erregulazio ezabatu nahirik, merkatuak edo negoziazioen atzean dauden elite ekonomikoen mozkin ekonomikoen pilaketa oztopatu ahal dituen eskubide oinarrikoenak barne.

Nekazaritza eta elikaduran, adibidez, orain arte EB-n debekatutako hormonengandik, transgenikoengandik, antibiotikoengandik eta pestizida askorengandik babestu gaituzten **arreta printzipioa** edo **osasun/higiene araudiak deuseztatuko lirateke**, baita animalien ongizatea eta ingurugiroa babesteko araudiak ere. Hauek denak elkarrekin nekazaritza eta abeltzaintza eredu industrialak Europan aurrera egitea ekidin duten nolabaiteko hesiak izan dira.

Itun hauek Euskal Herriko nekazaritzan dituzten ondorioak larriak dira nekazaritzaz, elikaduraz, ingurugiroaz, enpleguaz, zerbitzuez, etab. erabakitze eskubidea, Elikadura Burujabetza, enpresa transnazionalen edo nazioarteko merkatuetan aritzen diren botereen esku uzten dutelako.



Hori bai, oso garrantzitsua eta funtsezkoa da antolatutako baserritarrak, mugimendu sozial, sindikatu, tokian tokiko eragile eta GKE-ekin batera, baita euskal administrazioetatik ere, hesi politiko eta juridikoak, sozio-ekonomikoak, ingurugiroarekikoak eta osasunarekikoak jar ditzagun, aldi berean biztanleria osoarentzako elikadura osasuntsurako eskubidea bermatuz, hitzarmen hauen eskutik datozen botereen sarreraren eta politika neoliberalen aurrean babes-ekzutu izan daitezten.

MME barruko akordioek eta Merkataritza Askeko Itunek Euskal Herriko nekazaritza eta abeltzaintzarako ondorio larriak izan ditzakete, baina, aldi berean, aplikatuko dituzten eragileak behar dituzte, eta garrantzitsua da hori kontuan hartzea.

Maila sozialean, ahobatasunez egin zaie uko itun horiei. EHNE-Bizkaian ere

erabat ukatzen ditugu, eta horregatik hartu dugu parte euskal gehiengo sindikalarerekin eta TTIP eta CETArekin kontrako plataformekin batera deitutako mobilizazioetan. Baina eraiki daitzekkeen alternatibak ere badaudela sinesten dugu:

Bestelako Nekazaritza eta Elikadura Politika Bateratu bat posiblea da. EPB 2020 negoziazioa parez pare dugu. Baserritar kopuru handiagoga eta gizarteko gainerakoekin parekatutako errentak oinarrian, eta elikadura burujabetza eta tokiko ekoizpen sostengarria ardatz izango duen nekazaritza politika baten aldeko posizioa maila sozial zein instituzionalean artikulatzea garrantzitsua izango da.

- Elikadura tokian tokiko **politika publikoak egituratzeko ardatz gisa.**
- Nekazaritza jardueran **personek erabakitzearen** prozesuetan indarrak biderkatzea.
- Ekoizpena eta sektorearen azpiegiturak pertsonentzako **elikagai osasuntsuak bermatzera** bideratzea.
- Elikadura balioan jartzera eta identifikatzera bideratutako **kalitate politikak.**
- Ekoizpenaren, eraldaketaren, merkaturatzearen, prezioen eta kontsumoaren **behatokia.**
- Nekazaritza jarduera bere osotasunean kontuan hartuko duen eta ikuspegi sozialari dagokionez justua izango den **fiskalitate eraginkorra.**

Tratatuen aurrean ezinbestekoa da mobilizazioa eta jendarte antolakuntza, eta era berean, politika publikoetan eragina izango duten alternatiba sozio-ekonomikoen eraikuntza, horrela Euskal Herrian politika neoliberalentzako eta bizitzako esfera guztien pribatizazioarentzako bazter izan daitezten.

Borroka baldin badago, badago itxaropena! ■

“Un pueblo que garantiza una alimentación suficiente, sana, a su población, es un pueblo que no depende de nadie”

¿Cuáles dirías que son hoy las principales reivindicaciones de los y las trabajadoras agrícolas?

Desde mis inicios hasta ahora las cosas han cambiado bastante, y no a mejor precisamente. En los últimos años se ha precarizado muchísimo el trabajo agrario, tanto el del campo como el de almacenes. Las empresas han empeorado las condiciones laborales, se han recortado derechos y no se cumple con los convenios colectivos, ya de por sí insuficientes. Para las mujeres ésta realidad es aún más cruda. Se aprovechan de la necesidad económica, además de la necesidad de reunir 35 días trabajados en el campo para tener derecho a la prestación de la renta agraria que consiste en 6 meses de ayuda de unos 425 euros si cumples una serie de requisitos. Esto con una política agraria comunitaria que no favorece el cultivo que genere empleo, si no que subvenciona y premia la superficie. No hay una conciencia ni identidad colectiva como pudo haberla hace años de la necesidad de lucha por el acceso a la tierra. Hoy una de los principales reivindicaciones es eliminar el requisito de las peonadas para tener derecho a esa pequeña ayuda, que se dignifiquen los salarios del campo y se cumplan los convenios y planes especiales de empleo para épocas de poco o ningún trabajo en el campo.

Pero desde luego creo que la reivindicación histórica de “la tierra para quien la trabaja”,

Mari Carmen García Bueno (Coronil, 1962) es militante histórica del SAT, miembro de Vía Campesina y ahora parlamentaria de Andalucía y portavoz en la Comisión de Agricultura, Pesca y Desarrollo Rural. Su trayectoria militante está estrechamente vinculada a la tierra y al trabajo relacionado con ella.

el derecho al acceso a la tierra y las semillas, el agua, está más vigente que nunca con el proceso de acaparamiento de tierras que se está produciendo en el mundo. Resaltar que esa reivindicación hoy es más necesaria que nunca.

El SAT ha sido muy innovador en sus formas de lucha, tanto mediante la ocupación y la desobediencia, como uniendo en la batalla las zonas rurales y urbanas.

Desde los inicios del SOC siempre se



Mari Carmen García Bueno
Miembro de Vía Campesina

tuvo conciencia de la importancia de que organizaciones sindicales alternativas eran imprescindibles para hacer una lucha común contra el sistema capitalista.

Estábamos convencidos de que las luchas que se habían mantenido en el campo en favor de la dignidad, eran luchas que se podrían trasladar a otros sectores como la construcción, sector servicios, universidad, etc. Articular una conciencia de clase colectiva que permita unificar luchas comunes. Y además los jornaleros ya no solo existen en la agricultura, la precariedad, la temporalidad, la discriminación, se dan en todos los sectores, por lo que decidimos junto a otros colectivos la creación del SAT.

Por una parte, la lucha sindical ha tenido como consecuencia que seamos uno de los sindicatos más represaliados de Europa. El crear redes, el apoyo mutuo, ha sido imprescindible en la pervivencia de una organización pequeña que ha sido criminalizada y represaliada, buscando la desmoralización, el miedo y la asfixia económica.

Los últimos años has participado activamente en la Vía Campesina. ¿Qué es, de dónde viene, y hacia dónde va?

Es un movimiento internacional de campesin@s, trabajadores migrantes, indígenas, trabajadores y trabajadoras rurales, Sin tierra, representa a 200 millones de hombres y mujeres en el mundo. **Desde su fundación a principio de los 90 no ha parado de crecer:** cuenta con 164 organizaciones locales y nacionales en 73 países.

LVC puso en el debate político la necesidad de un modelo agrícola sostenible, una lucha incansable contra las privatizaciones del agua, la energía, la biodiversidad, la tierra, las semillas, los recursos genéticos... Desde LVC se lucha contra los transgénicos y la prohibición del intercambio de semillas. Se apuesta por la agroecología, en

“Las luchas que se habían mantenido en el campo en favor de la dignidad, eran luchas que se podrían trasladar a otros sectores.”

“LVC puso en el debate político la necesidad de un modelo agrícola sostenible”

“El feminismo campesino y popular lo estamos construyendo día a día con nuestras luchas.”

“Hay sindicatos que están jugando un papel nefasto en la lucha por la soberanía alimentaria”

“Controlar el agua, las semillas, la tierra... es controlar la vida.”

definitiva, por la producción campesina y por la soberanía alimentaria.

Los últimos Congresos, tanto las mujeres como los jóvenes de la Vía Campesina habéis visto la necesidad de organizaros y reflexionar por vuestra cuenta.

Desde un primer momento, se vio la necesidad de visibilizarnos, **las mujeres no podíamos jugar de nuevo un papel secundario como en muchas organizaciones**, no podíamos dejar de nuevo que nos robaran la palabra y fuesen los hombres los que mayoritariamente representarían la voz de los campesinos y campesinas, de los migrantes, de los sin tierra. Exigimos tener representación en cada foro, debate, reunión, etc.

Vimos importante y necesario tener nuestros propias asambleas de mujeres, donde sin miedo se pudiese participar. Además necesitábamos tener una agenda propia donde hacer campaña contra la violencia machista, formación y construir un feminismo campesino y popular. La lucha contra la violencia hacia las mujeres debe ser una prioridad central de nuestro movimiento.

Las mujeres de Vía Campesina vimos la necesidad de construir una reflexión sobre lo que algunas se atrevieron a llamar **feminismo campesino y popular**. Partimos de un análisis de la realidad actual del campo, de la lucha común que nos identifica.

Queremos recuperar la memoria y la lucha de muchas compañeras que lucharon por nuestros derechos y han sido invisibilizadas. En definitiva, el feminismo campesino y popular lo estamos construyendo día a día con nuestras luchas.

Los jóvenes también sentían la necesidad de organizarse y debatir sus problemas concretos, construir su propia agenda, por lo que en cada conferencia de la Vía Campesina, antes hay asamblea de jóvenes y de mujeres, para posteriormente llevar las conclusiones a la asamblea general.

Los últimos años ha habido una escalada de violencia represiva contra los campesinos y sindicalistas que defienden el agua, la tierra o cualquier recurso natural.

Existen privilegios y privilegiados que no están dispuestos a renunciar a lucrarse con la esquilación de la tierra y los recursos naturales. **El agua, la tierra, los recursos naturales son esenciales para la vida.** Controlar el agua, las semillas, la tierra... es controlar la vida en el mundo y poner la misma al servicio de una élite que la utiliza en su afán sin límites de ganar dinero. Quienes luchan por que los bienes comunes sigan siendo algo que está al servicio de los pueblos y de la vida, y que es necesario cuidar y mantener por nuestra supervivencia y por las de las generaciones futuras, están enfrentando la peor de las batallas. **La solidaridad internacional, la lucha colectiva, la difusión, el apoyo, el replicar las experiencias en otros territorios se hace fundamental.** La crisis social, ambiental y humanitaria que padecemos sólo es posible combatirla unidos y unidas. La defensa de los bienes comunes es una cuestión de supervivencia del propio planeta.

Actualmente eres parlamentaria de Andalucía. En tu opinión, ¿qué hay que exigir a las instituciones, que sea viable y cuestión de voluntad política?

El problema es que quienes están en las instituciones gobiernan y legislan para intereses muy concretos. **No es casualidad que Miguel Arias Cañete fuese quien negociara la PAC en favor de grandes terratenientes,** sin ningún beneficio para los pequeños campesinos que son quienes cultivan realmente la tierra, crean riqueza y generan empleo. Al final las instituciones son un elemento más de este sistema capitalista, puestas al servicio de sus intereses y es difícil plantear cambios que vayan a la raíz de los problemas desde ahí. Darle



la vuelta a esto y plantear un cambio radical del sistema productivo no se hace sólo desde la institución. **Se necesitan organizaciones sociales y sindicales fuertes que empujen en el mismo sentido y hagan presión social para que las cosas cambien.** La voluntad política sólo se cambia cuando se trabaja desde las instituciones y de la mano de fuerza social en las calles.

¿Cuál crees que es el papel de los sindicatos en esta lucha?

Hay sindicatos que están jugando un papel nefasto en la lucha por la soberanía alimentaria, apoyando políticas neoliberales, defendiendo un modelo productivo que termina con los recursos naturales, que son insostenibles

medioambiental y socialmente, apoyan los tratados de libre comercio...

Sin embargo, hay sindicatos que sin trabajar en el sector primario, se solidarizan con organizaciones que están luchando y están siendo represaliadas por esta lucha. Vivimos en un mundo globalizado, **todos somos consumidores, tenemos un poder enorme en presionar en qué modelo de agricultura apoyamos,** la soberanía alimentaria es una responsabilidad de todos, productores y consumidores.

¿Qué papel tiene la soberanía alimentaria en el futuro y en la propia soberanía de los pueblos?

La soberanía alimentaria tiene un papel importantísimo. **Un pueblo que garantiza una alimentación suficiente, sana, a su población, es un pueblo que no depende de nadie,** que no le pueden imponer desde otros lugares modelos productivos que solo benefician a unos pocos a costa de la explotación y exclusión de la mayoría social.

Esta claro que hoy la política alimentaria esta diseñada para que grandes multinacionales se beneficien a costa de esquilmar todos nuestros recursos. **Vivimos en un mundo con recursos finitos, una tierra que nos facilita la vida y poder alimentarnos, y que debemos cuidar** para las generaciones futuras y eso es algo que ninguna empresa capitalista va a hacer. No se hacen políticas públicas en ese sentido, al contrario, se les facilita esa sobreexplotación y empezamos a sufrir las consecuencias. El cambio climático, que nadie se toma lo suficientemente en serio, y que sin embargo ya empezamos a ver con claridad, es una llamada de atención que nos señala que se hace urgente tomar medidas. La soberanía alimentaria es un medio y un fin. ■

Entrevista completa en www.iparhegoa.eus.

Euskal Herriko elikadura burujabetza, horixe da hain zuzen ere, nekazarion ekarpena herrialdea eraikitzeko. ETXALDE-Nekazaritza iraunkorrrak helburu bezala Elikadura Burujabetzan oinarritutako Euskal Herri bat eraikitzea du. 2011. urtean Ipar Euskal Herriko eta Hego Euskal Herriko baserritarrak, proposamenezko eta aldarrikapenezko nekazal sindikalgintza baten inguruko militantziak elkartuta, mugimendu honen artikulazioari ekin genio, honela estrategia bateratu bat abiatzeko asmoz.

Elikadura burujabetzatik ekonomia eta gizarte eraikuntzarako gure proposamen politikoa elkartasunari, justizia sozialari, lanpostuen sortzeari eta ekoizpen eskubideen banatzeari, gizon eta emakumeen arteko eskubideen berdintasunari, lehengaien erabilera jasangarriari, biztanleria guztiarentzako elikadura osasuntsuari eta Euskal Herri osoan ekoizpen eta nekazal aniztasunaren errespetuari eduki praktikoa ematearen norabidean definitzen dugu.

Elikagaien ekoizle gisa nekazaritza jasangarria eta agroekologia gure eredu eta zientzia dira, gure jarraibidea. Mugimenduaren karakterizazioa duen gaur egungo nekazal sektoreko antolamendu maparekin bateragarri izanez, baina batez ere beste borroka dinamika, antolakuntza eta proposamen lokalizatuago edo konkretuago batzuetan iragazkorra izateko gaitasuna bilatuz.

Badakigu eraikuntza hau ez dela posible soilik nekazal sektoretik abiatuta eta hori dela eta gure estrategian lehenetsunezko gaia mugimendu sozial eta sindikaletan parte hartzea da. Gure ekimenak, analisiak eta proposamenak gure isla izatea nahi dugu siglen gainetik, eta udaberri honetan aurkezten dugun dokumentu honen bidez, ETXALDEk bere hausnarketa eta proposamenak aurkeztu nahi ditu, Euskal Herriko eta Euskal Herriko.

Elikadura eta honen ekoizpena, Euskal Herriko oraina eta etorkizunaren giltza

ALAZNE INTXAUSPE ELOLA (Andoain, 1984). Gizarte Zientziak eta Enpresa ikasi eta telebistan lanean hasi arren, bizimodua aldatzeko apustua egin, eta baserrira itzuli zen, aiton-amonen bidea jarraituz. EHNE eta Etxaldeko kide da, eta iazko udan Derion burutu zen Via Campesinaren VII. Nazioarteko Konferentziaren prestaketan aritu zen burubelarri.



ELIKADURA BURUJABETZA ETA NEKAZARITZA IRAUNKORRA ELIKADURA ESKUBIDEAREN BERME BEZALA

Pertsona orok elikadura osasuntsua izateko eskubidea duela aldarrikatzerakoan, giza eskubide batez ari gara.

Edozein herriren eraikuntzarako oinarritzko ekarpena da hau, baita jendartearen beharrei erantzungo dien gizarte justu eta berdintsuagoa artikulatzeko ere. Elikadura osasuntsua izateko eskubidea ziurtatu ahal izateko orduan, elikadura burujabetza da proposamenik eraginkorrena, bai baserritarrei, elikagaien

ekoizle moduan, etorkizuna bermatzeko, zein biztanleriarentzako elikadura osasuntsuaren eskubidea bermatzeko eta baita Euskal Herri parekide baten eraikuntza ahalbidetzeko ere.

Elikadura burujabetzaren eraikuntza, burujabetza ekonomiko eta sozialaren artikulaziotik ulertzen dugu, lanak eta ardurak mugimendu sozial eta sindikalariekin elkarbanatuz. Eta bertan, Euskal Eskubide Sozialen Kartan aurkeztutako elikadura osasuntsu baten aldeko eskubideen manifestua kokatzen dugu.

Mugarik gabeko bide produktiboen logika eza gero eta argiago ikusten da eta zentzu berean bi abiaduretako nekazaritza ekoizpena bultzatzea ez da posible; ekoizpen intentsibo eta industrial bat eta ekoizpen osasuntsuago bat (ekologikoa). Aspaldi aitortu genion gure buruari baserritarren funtzioa elikagaien ekoizle eta zerbitzari izatea dela, eta ez beraz industriarentzako lehengai merkeen hornitzaile. Elikadura burujabetzak, ekoizpen lokalarekin lotura izateaz gain, ekoizpen eredu bati lotutako izaera du, tokian tokiko kontsumoaren beharrezanasetzeko bideratua, eta ez da nekazaritza intentsibo eta industrial batekiko bateragarria nahiz eta berau lokala izan.

Nekazaritza iraunkor batean oinarritutako eredu batekin soilik ahalbidetu liteke elikadura burujabetzaren printzipioak artikulatzea, eta zentzu honetan, barneratzen dituen baloreak azpimarratzen jarraitu beharra daukagu. Hain zuzen ere, ekoizpenaren banaketa ahalik eta baserritar gehien artean egitea, ingurumena errespetatuz kalitatezko elikagai nahikoa ekoiztea gizarterako eta ekoizpen prozesuan gehien go autonomiara heltzea. Era berean, kontsumitzailearentzako gardentasun osoa bermatzea produkzio, eraldaketa, merkaturatze eta bukaera prezioaren eraketa prozesuan eta gure ekoizpena bertako merkatuetara bideratzea,

kanpo merkatuen konkistetatik ihesi. Elkartasunean, osagarritasunean eta merkataritza justuan oinarritutako beste harreman ekonomiko batzuk probestea eta gure herri eta herrialdeetako garapen lokalaren parte aktiboa izatea. Hala nola, ekoizle eta kontsumitzailearen arteko erlazioetan gardentasuna, konfiantza eta etika bidaide hartzea.

Balore guzti hauek beste parametro orokor batzuetan oinarritzen dira eta kontutan hartu beharra ditugu, elikagai osasuntsu eta kalitatekoen probesle izatea, nekazaritza industriak sorturiko elikagaien alarmak ekidinez eta planetaren osasuna agroekologiaren bitartez bermatuz eta Hegoaldeko herrietako nekazariak beraien bizia duintasunez berreskuratzea ahalbidetzea, pobrezia eta gosea ezabatuz.

Urte askotan mantendu da, nekazaritza industrialak soilik bermatu dezakeela munduko biztanleria elikatzeke elikadura hainaren diskurtsoa, kopurua kalitatearen aurretik jarritz, prezio baxuko produktuak kontsumitzaileari eskainiz. Errealitateak ordea, datuak eskaintzen ditu argudio hauek ezeztatzeke. Gero eta industrializazio eta intentsifikazio handiagoa nekazal sektorean, hare eta gose, pobrezia, desplazamendu, desertifikazio, aktibitate uzte... gehiago. Modu esponontzialean biderkatzen dira. Honek dagoeneko iritzi publikoan ere badu oihartzuna, gero eta gutxiago baloratzen baita lehiakortasun printzipioan oinarritutako garapen modelo hori, eta beroni buelta emateko argudioak trinkotu behar ditugu.

Egun bizi dugun momentuan, ezin dugu Nekazaritzako Politika Bateratuari (NPB) erreparatu gabe pasa. Argi dugu posible dela bestelako NPBa bat artikulatzea, non Elikadura politikak protagonismo argia izango duen proposamen eta ezarri beharreko neurrietan. Europar instituzioak, kide diren estatuak barneratzeaz gain, gobernu eta entitate loka-

lak ere aintzakotzat hartuko dituen. Tokian tokiko errealitateetatik abiatu beharreko diseinuarekin, non lurraldeek elikaduraren inguruan beraien helburuak diseinatzeko ahalmena izango duten (osasun gaiak, lana, ondasun naturalen kudeaketa, kultura...) eta biztanlegoaren beharrak asetzen dituen.

Laburbilduz, enplegu tasa gorena, kalitatezko ekoizpena eta kantitate nahikoan lurralde eta biztanleriaren zerbitzura gako bezala duen kuadro lokala. Eta europar mailan, elkartasun eta jasangarritasunak garapenerako justizia soziala deritzona gorpuztuko duena.

Ekoizle, kontsumitzaile eta biztanleria orokorraren zerbitzura dagoen Elikadura eta Nekazaritza Politika mantendu eta bultzatzeko, Europak tresnak artikulatu behar ditu garapen ekonomikorako gakoan (ekoizle gehiago), garapen sozialari erreparatuz (biztanleria elikagai osasuntsu eta kalitatekoekin elikatu, ondasun naturalen kudeaketa egokia) eta baita garapen kulturalari begira ere.

Maila berean, Euskal administrazioak ere bi abiaduretako nekazaritzaren menpe daude. Tokian tokiko ekoizpenari lotuta finantzazio neurri garrantzitsuak ematen diren bitartean (sor marken inguruan edo marka edo kalitate ziurtagiarrietan), ez dira gai mekanismo eraginkorrak aktibatzeke erosketa publikoetan eskuhartzea ahalbidetzeko. Kasu honetan, baserritarrek errenta duin bat izatearen eskubidea, norbanakoak elikagai osasuntsu eta kalitatekoa prezio justu batean izatearekin alderatu dezakegu. Ezin dugu onartu elikagai lokalen kontsumoa luxu bat bezala ikusia izatea ezta bere kontsumoa momentuko ekintza folkloriko bat izatea ere. Ezinbestekoa da administrazio publikoei azpimarratzea oinarritzko beharrezanetak bermatu behar dituela, eta beharrezan horietan elikadura osasuntsu eta kalitatekoa egon behar da, bai produktu galkorretan zein freskoetan ere. Beharrezkoa da



Vía CAMPESINA

beraz, tokian tokiko elikadura politika publikoaren bizkarrezur moduan aurkeztea.

Tokian tokiko apustua, merkatu lokal eta denda txikietan ere izaten ari da oihartzuna. Espazio hauek indartzen jarraitu beharra dugu, produktu lokal eta garaikoei lehentasuna emanez, eta kontsumitzailearen aldetik konplizitate handiagoa bilatu behar dugu promozio mekanismoetaz baliatuz eta ekonomia sozialean beharrezko aktibitatea dela onartuz.

INDARRAK BIDERKATU NEKAZARITZARA JENDE BERRI GEHIAGO GEHITZEKO

Gizarterako elikagaiak sortzearen lana gure ardura dela dakigun moduan, argi daukagu, ekoizpen lanetara pertsona gehiago gehitu behar direla Elikadura Burujabetzaren erronka aurrera eraman nahi badugu. Lan honetan, emakumearen lanaren inguruan defizit historiko bat daukagu hala ere, emakumearen jakin-

duria eta dedikazioaren aitortza egiten nekazaritza iraunkor eta osasuntsu batean mantentzean.

Onarpen honen eskura, azpimarratzen dugu biolentzia matxista deusezteko eraiki beharreko baldintzetan egin beharreko lana, emakumeen bizia eta duintasunaren kontra baitoa. Nekazal aktibitateetarako edozein txertatze beti emakume eta gizonen arteko ekitatean oinarritu behar da. Mekanismoak bermatzea beharrezkoa da emakumeen benetako txertatzea ahalbidetzeko, bai ekoizle moduan zein ordezkartzan. Honetarako informazioa eta formazioa hartu behar ditugu ildo estrategiko moduan, eta laguntza neurriak aldarrikatu dependentzia eta kontziliazio familiarren inguruan, baita lan egoeraren eta lan mundura txertatzearen erregularizazioa ere. Administrazio publikoetatik artikulatutako instrumentu legalak (emakume baserriarraren estatutua) baliabideetaz osatuta egon beharra dute hauen garena ahalbidetzeko, eta nekazal politika eta elikadura politiken parte izan behar

dute, zeintzuetan ekitatea eta justizia soziala oinarri delarik.

Herrigintza honetan, ezinbestekoa da nekazal aktibitatean txertatzean aurki daitezkeen oztopoetan lanean jarraitzea, eta oinarritzak da lurraren eskuratzean dauden trabak deusezteak. Historikoki, lurra gure lan ardatza izan da, Lurralde antolaketarako jarraibideetatik hasita, udal antolaketa planekin jarraituz, Lurren bankuak,... Lehenetsi beharra dugu lur emankorra nekazal jardunera txertatzen diren pertsona berriei eta aktiboan dauden esplotazioei iraunkortasunera bideratzea.

Mugimendu honek zentzu praktikoa eman nahi die baloreei eta gure proposamen teorikoa praktikan oinarritua egotea gehigarri bat da zentzu honetan, gai honetako lehentasunak mantentzeko eta markatzeko adierazgarri onena delarik. Bide honetan, perspektiba eta pazientzia nahikoarekin aritu beharra daukagu gure proposamena alor kualitatibo eta kuantitatiboan baloratu ahal izateko. ■

“Argi daukagu azken hamarkadetan garatu den laborantza industrialak ez duela gerorik”

Labur batean, nondik dator Laborantza Ganbara? Zeintzuk izan dira bere inflexio-puntu nagusiak?

Euskal Herriko Laborantza Ganbara 80 hamarkadan sortu ELB (Euskal Laborarien Batasuna) sindikatuaren borrokaren ondorioa da. Garai hortan, Euskal Herriko laborari militante batzuk orduko sindikatu bakarretik (FNSEA) ateratzea erabaki zuten, gure lurraldeari egokia zen laborantza baten defenditzeko. Borroka asko izan dira eta horietarik bat, Euskal Herriko Laborantza Ganbara baten eskakizuna izan da. Frantses estatuak ez du inoiz onartu holako egituraren sortzea, eta ondorioz, erabaki zen gure esku hartzea ganbararen sortzea. Ganbara ofiziala ez izan arren, elkarte modukoa sortu zen 2005ean. Frantses estatua eta Paueko Laborantza Ganbara 5 urtez saiatu dira egitura berri honen geldiaraztea auzien bidez, baina denak galdu zituzten. Aurten gure 13. urtebetetzea ospatu dugu eta 19 langile ari dira helburu desberdinen aitzinarazten.

Ze oztopo ditu egun laborantza iraunkorrak? Ze tresna ditu Laborantza Ganbarak horiei aurre egiteko?

Laborantza iraunkorrari oztopo nagusi bat ikusten diot: laborantza industrialaren eta bere agintariaren presioa, bere sirena distiratsuekin, bere gezurrekin. Aldiz, oztopoen gainetik, jendartearen eskakizuna hor dago, ildoaren idekitzeko, geroaren erronka berrien erakusteko. Argi daukagu azken hamarkadetan garatu den laborantza industrialak ez duela gerorik. Osagarriko arriskuak dituen elikagaiak

PANPI OLAIZOLA (Baiona, 1980) mendi-gidaria eta laboraria da, baita Ezpeletako biper ekoizleen elkarteko lehendakariordea ere. Horrez gain, egun Euskal Herriko Laborantza Ganbarako bulegokidea ere bada.

sortzen ditu, ingurumena kutsatzen du, laboraria zentral batzuen esklabo bilakarazten du...

Laborantza Ganbarak bere biltzar nagusian, laborarietaz gain, kontsumitzaile elkartetako ordezkariak sartu ditu, sindikatuetoakoak, ingurumen elkartetakoak... Jendartearen ikusmoldea konduhan hartu nahi dugu gure norabideen finkatzeko unean. Segur gaude horrela dugula burujabetasunaren bidea hartuko. Laborantza iraunkorraren



Panpi Olaizola
Euskal Herriko Laborantza
Ganbarako bulegokidea

aurrera eramateko, ekonomikoki, sozialki, ingurumen aldetik egokiena dela erakusten saiatzen gira.

Ze proiektu eta lan lerro dituzue une honetan esku artean?

Une honetan, jarraitzen dugu gazteen instalazioa eta etxaldean transmisioa laguntzen, hau baita erronka zentrala, bihar laborantza bizirik ikusi nahi badugu. Bestalde, kalitatezko sail desberdinak garatzen ditugu, luraren lantzeko teknika jasangarriak ezagutarazten, agro-oihangintza berriro sarrarazten etxaldetan...

Azken hilabeteetan, pasa den urtean sortu Euskal Elkargoarekin ari gira gogoetan. Gure lurraldea bere osotasunean estaltzen erakunde hori tresna egokia iduritzen zaigu, lurralde hortako laborantza norabideak hartzeko eta hemengo desmartxen garatzeko.

“Laborantza iraunkorrari oztopo nagusi bat ikusten diot: laborantza industrialaren eta bere agintarien presioa”

“Jarraitzen dugu gazteen instalazioa eta etxaldean transmisioa laguntzen, hau baita erronka zentrala, bihar laborantza bizirik ikusi nahi badugu”

Ipar Euskal Herrian lehen sektoreak pisu handia izan du betidanik. Ze eragin du horrek lurralde antolaketan eta jendartearen? Ze etorkizun aurreikusten duzue?

Lurralde antolaketa mailan, zoritxarrez, azken bi belaunaldietan ez da kondutan hartu laborantza lurrak behar-beharrezkoak zirela eta milaka hektarea galdu dira etxe edo eremu industrialen sortzeko. Halaere, gaur egun gai hori gehiago kondutan hartzen da eta udal batzuk laborantzari lurrik ez hartzeko nahikeria argia dute. Jendarte ikuspegia ere aldatzen ari da. Jendea ohartzen da herri hau gustokoa duela ere nekazaritzak gure bazterrak gisa berezian marrazten dituelako, kalitatezko produktuak ekoiztuak direlako. Etorkizunerako, horrek pisu handia izaten ahal du. 35 AMAP edo salmenta zuzeneko elkarteak sortu dira urte gutxitan eta urtero berriak sortzen



EHLGBai.org



dira, kontsumitzaileek laborarien instalazioak lagundu nahi baitituzte gisa batean edo bestean. Hortaz gain, erakunde batzuek ere nahi lukete tokiko janaria proposatu eskoletako haurrei, zaharretxetako adinekoei etab., horretarako laborariekin eskuz-esku lan egin behar da.

Ze lotura dago herritarren eta EHLG-ren artean? Nolakoa da parte hartzea, elkarrekiko harremana... Herri babesetik jaio zen ganbara, ze garapen izan du harreman horrek?

Gorago aipatu bezala, herritarrak gure egituraren barne dira. Ezinbestekoa da, herritarren ikuspegia kondutan hartzea. Ezin dugu jendarteak nahi ez duen ekoizpena sortu. Ez luke zentzurik. Horregatik, uste dut gure laborantza aldatuko dela, pixkanaka pixkanaka, tokiko beharrei erantzuteko. Hemen oraindik fruitu oso guti ekoizten da, barazkiak eskas dira, oilaskoak... Jendartearekin harreman sendoa izanez, hautu onak egingen dira. Urtero urtarrilean ospatzen den EHLGren urtebetetzean, laborari baino beste herritarrak dira gelan nagu-

“Jendartearekin harreman sendoa izanez, hautu onak egingen dira”

“Ezinbestekoa da, herritarren ikuspegia kondutan hartzea. Ezin dugu jendarteak nahi ez duen ekoizpena sortu”

“Ohartzen naiz ezin dela egun batetik bestela modelo oso bat aldatu, baina instalazio bakoitzean gogoetatu behar da ea etxaldearen ekoizpena dibertsifikatzen ahal den ala ez”

si. Hautetsiak ere heldu zaizkigu urtero. Jende guzi horrekin harremana atxiki behar dugu, haiekin baititugu biharko erronkak gaindituko.

Ze lotura dago zuen ustez elikadura burujabetza eta Euskal Herri burujabetza artean? Ze paper du Bide horretan EHLG-k?

Iduritzen zait, burujabetza gaien koherentzia behar dela. Edo alor guzietan lantzen da gaia, edo bide txarrean gaude. Euskal Herria ez da burujabe izanen elikagai gehienak inportatzen baldin baditu. Horregatik egokitu behar dugu gure ekoizpena eguneroko beharrei. Gai hori egunero daukat buruan. Ohartzen naiz ezin dela egun batetik bestela modelo oso bat aldatu, baina instalazio bakoitzean gogoetatu behar da ea etxaldearen ekoizpena dibertsifikatzen ahal den ala ez. Horrela dugu gure kontsumoa berlokizatzen ahalko. Gero eta galde gehiago dira betiko ardi edo behietaz urruntzen direnak eta benetako ainitzasun bat sortzen ari da. Bide onean gaude. ■

Elikagaien ekoizpen eta kontsumo ohiturak aldatzeko makina bat proiektu sortu dira azken urteetan Euskal Herrian. Elkarlana, parte hartzea, hautu pertsonalak eta erronka kolektiboak, merkatuaren logikak gainditzea, aurreiritziak gainditzea, komunitatea.... urte hauetan elikadura burujabetzak elikagaien kalitatea, bertakotasuna eta sasoi bano erpin gehiago dituela ikusi dute.

Horren inguruan hausnartzeko, otsaileko arratsalde hotz eta euritsu batean Errekaleor auzo proiektuko 16. zenbakian hartu genuen aterpe, proiektu horietako ba-

tzuetakoz zenbait kiderekin batera mokadu bat hartu eta elikadura burujabetzak hausnartzeko.

Solaskide izan genituen Errigorako Xabier Gojenola, Ereindajan elkarteko Amaia Pavón, Laboreko Alaitz Ajuriagerra, eta Errekaleorreko baratza lantaldeko Eneritz Basabe eta Haizea Agirre.

Hona hemen arratsaldeak emanaren laburpen bat! Solasaldi osoa zein bideoa iparhegoa.eus webgunean dituzue eskuragarri.

Elikadura Burujabetzara bidea... bere barrenetatik

Zuen proiektuetako esperientzia oinarri hartuta... Zein da elikadura burujabetzaren filosofiara hurbiltzen den jendearen perfila? Zein da hartu-emana edo onura? Zabaltzeko zailtasunak?

Xabier Gojenola: Errigora dator Nafarroa hegoaldean euskarak bizi duen egoerari eta nekazaritzak azken urteetan bizi zuen egoerari erantzun bat eman nahi izatek eta hori antolatze-bidean, hasiera batean egin genuena lantaldetxo bat antolatzea izan zen. Lagunen lagun bitartez saiatu ginen saretzen, eta Euskal Herriko txoko desberdinetara heltzen. Harrera oso ona izan zen. Existitzen ez den ekimen baten bat-batean 40-50 herritan hori landuko duten 50-100 lagun egotea... Herri honek baditu baldintza bereziak herri-ekimenerako, edo horrelako ekimen baterako bide eman dezaketena. Eta behin lehenengo kanpaina abiatu, eta 8.000-9.000 saski saldu zirenean... Gure eskema guztiak apurtu ziren. Hortik aurrera etengabeak izan dira ekimen desberdinetatik etorri diren proposamenak, zabaldu diren ateak... Hasiera batean 5 ekoizlerekin hasitako ibilbide honetara orain ekoizleak beraiek zuzentzen dira, parte hartu nahi dutela esanez, etab. Orduan, zentzu horretan, Errigoratik behintzat, oso pozik harrerarekin, ederra

izan da. Agian gehiegi, ez? Urte gutxitan asko hazi den herri-ekimena izan delako, eta horrek ere bere arriskuak ditu sarritan.

Alaitz Ajuriagerra: Laboreren kasuan, Bilbon "Zer jan eta nola erosi" jardunaldiak egin zirenean, jardunaldiek oso harrera ona izan zutela ikusi zen. Alde batetik, herrigintzatik datorren jendea; beste alde batetik, bai ingurumenarekin bai elikadurarekin sentsibilizatuta dauden pertsonak. Proiektua oraindik garatzeke zegoen bere osotasunean eta, hasiera batetik, jende askok apustu egin zuen proiektu honen alde. Eta behin zabaldua, beste jende asko hurbildu da. Orain beste profil bat gehituko nuke: osasunarekin sentsibilizatua dagoen jendea. Ibilbide txiki honetan esan dezakegu Laboreren harrera positiboa izan dela.

Amaia Pavón: Ereindajanen ere, bereziki denda zabaldu aurreko etapan, bereziki ikuspegi politikoa duen profil hori egon zen, baina denda zabaldu osteko etapan, kontsumitzaileen perfila aztertzen hasten zara, eta zati handi bat osasunarekiko arduragatik dendara joan dena da. Gaixotasunen baten ondorioz hartzen den kontzientzia horrek bultzatuta, edo...

Dena delakoa, baina osasunarekin ikuspegitik jende pila bat hurbiltzen da.

Haizea Agirre: Gurea nahiko desberdina da, ez dagoelako bezerorik... Baratza-lantaldea auzo-proiektu baten barneko adar bat da. Askotan aipatzen dugu proiektuan dirua erdian egon beharrean, **bizitza kokatu behar dugula, eta lantalde desberdinetan funtzionatzen dugu:** baratza bat da, baina badaude azpiegitura, komunikazioa, kultura... orduan, hartu-eman bat da. Guk auzora zabaltzen dugu, zerbait eta besteek berdina egiten dute. Baratza lantaldean gaudenok gara edo ikasteko interesa dugunok, edo baserrian hezitakoak, edo kontzientziatuak...

Parte-hartzea oso garrantzitsua da zuon proiektuetan. Auzolana, autogestioa... Nola eramaten duzue aurrera? Ze eredutara iritsi nahi duzue? Ze paper eduki dezake elikadura burujabetzak komunitatearen eraikuntzan?

AP: Gure ibilbidean bi etapa daude oso markatuak: bata denda ireki aurrekoa, eta bestea denda ireki ostekoa. Denda irakurri aurreko fasea, 2012-2015 artekoa, oso emankorra izan zen: elkartu ginen, 50-



60 lagun inguruko talde-dinamikak izaten ziren, eta abiapuntutik jada banatu ginen kontsumitzaile eta ekoizleen lantaldean, produktuen identifikazio lantaldean, nola hedatu proiektua... lantalde desberdinak jarri ziren martxan. Bigarren etapan, badirudi lortu genuela nahi genuena, eta azkenean, **egin dugun hausnarketa da jendeak ikusi duela gauzatuta nahi hori, eta nolabait amaitu dela parte-hartzearen grina edo beharra.** Eta oso erronka potentea izaten dabil *Ereindajan* denderen bueltan ekintzen antolakuntzan jendearen parte hartzea. Aktibatu genuen ekintza-plan majo bat: baserrietara bisitak, baserria ezagutu, produktu desberdinen dastaketak... eta parte hartzea, oro har, oso baxua da, beraz, erronka moduan daukagu.

AA: Lehenengo fasearekin oso identifikatuta sentitzen naiz, nahiz eta gure kasuan bigarren fasea oso motza den irakurketa egiteko. Baina komunitatea sortzeko orduan, **tratu zuzenak, ekoizleak eta kontsumitzaileak elkarrekin batzeak, komunitate bat sortzeko aukera polita ematen dute.** Ikusiko dugu gu ere zelan antolatzen garen, ze plangintza eta ze ibilbide markatzen dugun hemendik aurrera.

XG: Errigoraren kasuan, ekimenak gai edo ildo desberdinak lantzen ditu. Bat da euskararena, azken finean Nafarroa

hegoaldean euskalgintzari lagundu nahi zaio, orain arte, dakigun modura, ofiziala ez delako izan eta zailtasunak daudelako. Besta bat elikadura burujabetzarena da. Eta nik uste dut beste batzuk badirela ere: lurraldetasunarena, herri-lanarena, auzolanarena... Beraz **gai desberdinak dira, jende desberdina hurbiltzeko aukera ematen dutenak.** Bat gehiago dator euskararen kontutik kontzientziatuta dagoelako; beste bat dator elikaduratik, eta elikaduratik ere bat dator osasunarekin irizpidearekin, bestea bertako ekoizleak laguntzeko; eta beste bat gustatzen zaionalako, ilusioa sortzen diolako eta ikusten duelako kutxaz kutxa zenbat jende mobilizatzen den eta ikusten duelako horrelako ekimenetatik datorrela eraldaketa.

Komunitatea sortzeari begira nik uste dut aniztasuna, zabaltasuna eta esku-zabaltasuna eduki beharreko elementuak direla. Gu zehazki, Errigorarekin, zonalde berezi batean lanean ari gara, ez da bereziki euskaltzalea den zonalde bat, adibidez, eta euskara erdigunean kokatuta joan gara. Horrek ze aukera eskaini dizkigu? Ba hainbat ekoizle bereziki euskaltzaleak ez zirenak, euskaltzalesunerantz datozela Errigorarekin, gurekin eskutik eskura lanean ari dira. Beraz, garatzen ari garen bideak jende eta eremu berriak irabazten ditu.

Eneritz Basabe: Gure proiektuan

gertatzen da auzolanak deitzean, parte hartzea konplikatu izaten dela. **Ohituta gaude militantzia batera zeinetan indarra orain egin, eta emaitzak momentuan daukazun, orduan, baratzak eskatzen duen konstantzia mantentzea kostatzen zaigu.** Denok dakigu elikadura burujabetzak daukan potentzialitatea, baina gero horrek suposatzen duen lana asumitzeko ez daukagu horrenbesteko prestutasunik. Orain arte izan dugun ikuspegia beti izan da auzoko kide batzuek sortzea baratza, auzokide guztiak elikatzeko produkzio maila erraldoi batekin, eta inoiz ez gara iritsi. Beraz, orain lantzen gabiltzana hori moteltzea da: goazen ikasteari ematera garrantzia, eta etekina beste modu baten ateratzera.

Askotan elikadura burujabea edo koherentea hautu pertsonal moduan ulertu izan dugu: norberak bere eguneroko erabakietatik bultzatzen duen eraldaketa. Nola egin hautu pertsonaletik borroka kolektibora salto?

AP: Nik esango nuke poliki-poliki gertatzen dabilela. *Ereindajan*en kasuan ikusten da **kontzientzia maila altu bat duen jendeak martxan jarritako proiektua dela, baina gune horren presentziak berak hurbildu duela beste jende bat.** Eta eztabaida ireki du herrian, prezioak ez direlako hain altuak. Gero, norberak erabakitzen du zenbateraino nahi duen koherentea-

go izan ala ez bere jan-hautuekin. Ikusten dudana da supermerkatuen eta produktu oso merkeen industria oso sartuta daukagula gizartean, eta horren aurrean beste kontsumo-ohitura edo produktu eredu batzuk zabaltzea erronka potentea dela. Baina nik uste dut gizartean badagoela eztabaida hori.

XG: Ni konbentzita nago bor-bor dagoela elikadura burujabetzaren kontua eta hemendik eta 30 urtera, ikastolekin, euskaltegiekin... sortu zen antzeko egoera sortuko dela. Hau da, orain kontsumo-elkarteak eta elikadura burujabetzarekin lotutako kontsumo eredu alternatiboak sortzen ari dira, eta horrek emango du antolakuntza eta bat-egite behar bat. Garai batean gau eskolak zirena, edo herri bakoitzean ikastola bakoitza, gero antolatzen joan da, ezta? Ba hau ere antolatzen joango da, hautu pertsonaletik harago, estrategia komun batetara edo herri-antolaketa batera.

HA: Lehen ere komentatu dugu ezin dugula inor derrigortu. Hausnarketa norbanakotik ez bada ateraten, beste norbaitek ez dizu aterako. Orduan, agian lehen fasea hausnarketa litzateke. Guk auzoan ez dugu oso ondo asmatu kontzientzia hori pizten, baina, gero eta kontzientzia gehiago daukagu elikadura burujabetzarekiko. Azken batean, asko kostatzen zaigu baratzean lan egitea, baina (soldatapean) lanean gabilta berdina egiteko, hau da, jatekoa lortzeko. Ez gara gai ikusteko guk ere egin dezakegula, ez?

AP: Kontzientzia pertsonala inportantea da, baina saretzea ez badugu lortzen, *Ereindajan* bezalako proiektu batek arriskua dauka kolektibo oso mugatu baten ekoizle eta kontsumorako gune bakarrik izaten bukatzeko. **Uste dut proiektu moduan bai eduki behar dela beste anbizio hori, poliki-poliki saretzen joateko bizi zaren komunitateko beste eragileekin.** Agian ez hazteko anbizioarekin, baizik eta... *Ereindajan* bezalako proiektu batek ahalko luke Arizmendi ikastolako

Ereindajan (Debagoiena)

Nekazal eredu ekologikoa bultzatzeko eta hurbilekoak eta sozialki justuak diren kontsumo ereduak garatu eta indartzea da *Ereindajan* Kontsumitzailer eta Ekoizle elkartearen helburua, eta Debagoiena bere lan eremua. Ikuspegi integrala izanda ere, epe motz-ertainean bertako produktuak eta ekologikoak saltzen dituen denda bat zabaldu zuten 2016an. Hala ere, proiektua dendatik harago joatea nahi dute.

bezalako jangela bat hornitu? Adibidez. Planteamendu hori bota eta aztertu Arizmendirekin, ekoizleekin... horrelako proiektuak.

XG: Uste dut txikitik handirantz egin behar dugula. Bestela oso eremu marginaletan geratzeko aukera daukagu eta eraldaketa horrek bere mugak ditu. Beraz, gu behintzat Errigoratik kontziente gara, herri modura elkarlan bat eta norabide bat abiatu behar dugula. Uste dut **elikadura burujabetzak aukera ematen duela oso bide transbertsala egiteko, izaera, esperientzi eta ikuskera oso desberdina daukan jendea batzeko.** Guri ekoizleekin hori gertatu zaigu: hasten zara ekoizleekin lanean, ikusten dute gainera, ekimen horrek emaitzak ematen dituela... Horrek eragiten duena da beraiek ere elikadura burujabetzaren norabidean urrats berriak emateko disposizioan jartzea. Orduan arte zainzuriak konbentzionalean bakarrik egiten zituen elaboratzaile horrek, urratsak eman ditzake ekologikoan ari den nekazari batekin lanean hasteko. Horrelako errealitateak ematen ari dira Errigoraren dinamika honetan, eta imajinatzen dut beste guztietan ere.

AP: Ni ados nago zurekin, e? Txikitik handira. Baina handitasun horrek ez dauka zertan superfizie handien alternatiba izan.

Handitasuna lor daiteke denda txiki bategatik bailarako eskola eta kooperatibetako jangelak hornitzen.

XG: Bai, eta ez nago proiektu zehatz batez hitz egiten, izan daiteke proiektuen arteko saretze bat...

AA: Azkenean, eskaera handiagoa badago gizartearen aldetik, ekoizleek ere urratsak emango dituzte beste ibilbide batzuk hartzeko. Azkenean, kate-maila bat da, eta beti begiratzen dugu bazkide/kontsumitzaile ikuspegia, baina **hemen gakoa ekoizleak dira, lehenengo katebegia dira, eta gu bukaerakoak.** Guk lagundu behar diegu. Elikadura burujabetza edo elikadurari dagokionez burujabe izan nahi badugu, momentu honetan, ezinezkoa da, baina ikusita zeintzuk diren gure elikadura ohiturak, ekoizleek pausu batzuk eman ahal dituzte, gero euren lanak bidea hartuko duela jakinda.

Egungo merkatuaren ezaugarriek (be-rehalakotasuna, marka eta produktu eskaintza zabala eta globalizatua, marka zuriak, ia kostuaren azpitik dauden prezioak), ze erronka jartzen dizkigute? Nola saihestu hautu honen alde egiten dutenak "pribilegiatu" gutxi batzuk izatea?



Goiena.eus | CC BY SA

AP: Bi norabide dauzkagu, baina *Ereindajen* identifikatzen dugun erronka potenteenatarikoa kontsumitzaileen jan-ohiturak aldatzea da. Kontsumitzailea joaten da dendara, badaki otsaila martxoan tomatea ez duela topatu behar, baina ez dago bereziki txipean ea hilabete honetan zer jatea tokatzen den. Bertako eta sasoiokotasun hori bada elikadura burujabetzaren oinarri garrantzitsuenatariko bat, niretzat gutxienez.

EB: Nik uste oso ohituta gaudela kapitalismoak eskaintzen dituen baliabide-etara. Ni supermerkatua joan naiteke eta edozein gauza aukeratu, eta horiek dira nik dauzkadan pribilegioak. Pentsatzen dugu baseritarrek produzitutako zerbait erosteagatik 3 euro gehiago ordaintzea pribilegio bat dela, baina zein da benetako pribilegioa eta zein da kapitalismoak egiten digun tranpa? Ez da hainbeste baliabide kontua, baizik eta kontzientzia kontua: zeri ematen diozun lehentasuna. **Lehen soldataren %60a erabiltzen zen elikaduran, eta gaur egun ez da ezer, %12a edo, ez dago erdigunean, ez zaigu inporta nola elikatzen garen, aukera merkeak ditugulako.**

XG: Azkenean, badago logika bat, jarnariaren inguruan, hain zuzen, espekulatu eta kultura konkretu bat sortzen duena, eta horren arabera funtzionatzen dugu. Errigoran hausnarketa batzuetan sartzen ari gara, konplikatua izan arren... Adibidez, planteatzen ari gara **herri-bitartekaritza eredu berriak** sortu behar diren edo ez diren sortu behar. Ekoizlearen eta kontsumitzailearen arteko harremana zuzena eta ahalik eta laburrena izan behar da. Hori posible da batzuetan. Baina, zer gertatzen da, adibidez, Ablitasen dagoen olio errota batean, urtean 500.000 litro egiten dituen? Horrek ez daukaibilitaterik familia-kontsumitzaileak berak bakarrik, zuzen-zuzenean aurkitzeko! Errigoraren lana, herri-bitartekaritza bat izan da, auzolanean oinarrituta egon dena, baina horrelako ereduak etorkizunera begira iraunkorrak dira? Behar dira bes-

te planteamendu batzuk? Errigoran uste dugu eztabaidan gutxienez sartu egin behar garela, baina batzuetan ausartu ere, ez gara egiten...

AA: Bai, kontraesan piloa daude! Barazkiekin, baseritarrekin eta hainbat produktuekin eduki dezakezu zuzeneko harreman bat, baina hainbeste ohitura dauzkagu hain barneratuta... gauzak kanpotik ekarri behar ditugula, eta hor dagoeneko bitartekariak sartzen dira, ezin dituzu ekidin. **Agian bultzatu ahal da bertako ekoizleak horiek ekoiztera.** Ekarriko ditugu Alemaniatik edo Bartzelonatik produktu kimiko batzuk, etxea garbitzeko, hemen ez direlako egiten? Azkenean, erabiliko ditugu bai ala bai, beraz, zelan bultzatu baten bat hemen horretara jartzea? Badaude horrelako proiektuen adibide batzuk.

HA: Oso gai interesgarria da. Lehen aipatu dugun komunitate-erakuntza horretan ze garrantzitsua den ezagutzea, konfiantza izatea... Bat izatea kontsumitzaile

eta ekoizlea. Azkenean, oso zaila egiten zait bitartekari horiek agertzen diren momentuan, komunitate izaera bultzatzea.

XG: Eta bitartekaritza eredu horretan ezin da hori egin? Ezagutza eman, ekoizlea hurbildu... Horrek beste eredu bat nahiko luke esan, baina egin daiteke?

AP: Zeri esaten diogu "bitartekari"? Ze *Labore* eta *Ereindajan* bagara bitartekariak.

AA: Bai, ekoizle eta kontsumitzaileak, aldi berean. Dena den, errealitatean, ezin dugu denok ekoizti, orduan, bai, gu gara bitartekariak kasu honetan.

AP: Bai, eta eztabaida potentia egon da, e? *Ereindajen* kasuan, ekoizle asko hurbiltzen joan dira proiektura, baina sare zuzenetik, hau da, ekoizletik kontsumitzaileera, saskien logikan, mugitu eta mugitzen jarraitzen du ekoizle askok. Baina, zer eta denda bat, gainera soldata pean kontratatutako bi pertsonarekin, margenak... Ba-



Bilbon ere elikadura burujabetza lantzeko beharra ikusita, herritar talde batek jardunaldi batzuk antolatzeari ekin zion 2016ko udazkenean. Eduki zuten harrera ona ikusita, apustua igo eta Bilbon bertan inguruko ekoizleak eta kontsumitzaileak batu eta topagune izango zen denda bat zabaltzea erabaki zuten. Bazkietze kanpaina abiatu, eta horrela, 2017ko abenduan, Laborek ateak zabaldu zituen. Ez da Euskal Herrian den Labore bakarra, izen bera eta antzeko ezaugarriak dituzten proiektuak existitzen dira Oiartzunen eta Irunen ere bai.

dakizue, eredu kapitalista birproduzitzen ari garen ala ez... Baina gero konturatu dira errealtatea dela prezioak ekoizleekin negoziatutakoak direla, margenak den-dako martxa eta lanean daudenak sostengatzeko... Irabazi asmorik gabeko elkarre moduan bizi da *Ereindajan*, eta konturatu dira saskiez gain badagoela bestelako gune bat zure ekoizpen horri aterabidea emateko. Bitartekaritza bat da, eta uste dut komunitatea sortzen laguntzen duela.

Herri mugimenduetatik eta baloreen gainean sortutako proiektu desberdinetan, bereziki soldatapeko langileak dituztenean, oso ohikoa izaten da auto-esplotaziorako joera... ze hausnarketa eman dituzue lan baldintzen inguruan?

AP: *Ereindajan*en kasuan, bi langile daude lanaldi osoz. Hasieran bakarri hasi zen lanaldi osoz, gero bat lanaldi osoz eta beste bat erdiz, eta orain bi daude lanaldi osoz. Ez dugu hausnarketa propiorik egin zuzendaritza-taldean, edo agian ez dugu esplizitatu. Bileretan parte hartzen dute eta komunikazioa zuzen-zuzena da, ea haiek zelan bizi duten lana, zelan koordinatzen diren... Esango nuke hasierahasieratik lan duina eskaintzen gabiltzala eta langileak dira *Ereindajan* proiektuaren bihotza oraintxe bertan, eta uste dut hori aitortzen zaiela, entzun egiten zaiela. Dendaren ordutegia bera da *puñeta* bat, oso zabalaz izaten da eta: pertsonari eskaintzen dion bizi-eritmoa, beste eztabaida bat da. Agian ohitu beharko ginateke beste ordutegi batzuk edukitzen komertzioetan, baina...

XG: Errigoran proiektua aurrera begira kokatu nahian gabiltza, ea urte luzetara begira jarri behar den, edo ea bere zikloa bukatu den. Gero eta ate gehiago zabaltzen ari dira eta ate horiek pasatu behar dira, aukerak daudelako elikadura burujabetzaren norabidean aurrera jarraitzeko, eta Nafarroa hegoaldean euskararekin urratsak ematen ere bai. Horrek eskatzen du aurrera begira tresna egokitzea, eta hor aurkitzen gara halako ekimenetan



Errekaleorreko baratza lantaldea

(Gasteiz)

Errekaleor Bizirik!

Urte luzetan langile auzo borrokalari izan ostean, Gasteizko udalaren plan urbanistikoen eta espekulazioaren prezioz ia hutsik zegoen auzoa zen Errekaleor, 2012an, hainbat ikasle etxebizitzaren problematikari heldu eta bertan bizilekua okupatu zuten arte. Etxebizitza ezari alternatiba izatetik harago joan da proiektua, hala ere, eta egun, bizitzaren burujabetza eta autogestioa erdigunean jarrita, bestelako bizi ereduak eraikitzeko espazioa da. Baita gero eta gazte gehiagoren auzoa ere. Beharizan eta ildo desberdinak lantzen dituzten hainbat lantalde daude auzoan, eta horietariko bat da baratza lantaldea, elikadura burujabetzaren diskurtsoa lantzeaz gain, praktikaz auzoa hornitzen saiatzen dena.

lan boluntarioak eta soldatapeko lanak daukaten tokiarekin. Nik uste dut, orokorrean, Euskal Herrian badagoela lanerako eta auzolanerako kultura, eta, orduan, bi eztabaida korapilatzen dira. Gogoratzen dut bertso-finalean ere gai bat hori zela, ez dakit euskara elkarre zen, baina ea profesionalizaziorantz jo behar zen edo auzo-lanetik jarraitu behar zuen, eta argumentuak bietan zeuden.

Eraldaketa sinesten dugunok zenbat eta aukera gehiago eskaini norberaren orduak lanean, proiektu horretan inbertitzeko, nik uste urrunago helduko gara. Nahiz eta jakin horrek badituela bere arriskuak. Baina beldur eta aurreiritzi horietatik uste dut ezin gabela aurrera joan. Badaude **aurrera begira antolatze modu berriak** lan bolondresa kontuan hartzen dutenak bazkide formatoan, edo ekimenari denbora ematen dion jendea, dirua ematen duen jendea... Badaude konbinazioak, behintzat, kontutan hartu behar direnak eta aurrera begira ereduak definitzerakoan zeresana daukatenak. Gu debate horretan gaude.

AP: Bi alderdi daude, ezta? Profesio-

nalizazio horrek ekarri ahal dizun erosotasunean jaustea batetik, eta bestetik... Lana bolondresa denean, bolondresa da eta kitto, ez? Baina lan egiten duzunean benetan sinisten duzun proiektu batean, nahasten da zer den lana eta zer den bolondresa. Gaurko elkarrizketara ni etorri naiz, baina Andoni edo Maite, langileak, etor zitezkeen, eta euren lan orduetatik kanpo etorriko lirakeke, ez lukete ezer ko-bratuko etortzeagatik, baina oso gustura etorriko lirakeke. Hau gertatuko balitz gaur, bihar, etzi eta etzidamu... hor agertzen da auto-esplotaziorako arrisku hori. Arrisku horrekin bizi behar dute honelako proiektuek.

XG: Ez dago eraldaketarik kontraesanik gabe, asumitu egin behar dira, bestela etxean gelditzen gara!

HA: Gure militantzia eredu oso azeleratua iruditzen zait, ez gaude prest pentsatzeko iraultza poliiki etorriko dela. Orduan pazientzia galtze dugu, eta asko lotzen dugu militantzia gaztetasunarekin: gazteak garenean kriston iraultza egingo dugu, gero ikusten dugu ez gabela iritsiko eta amore ematen dugu...

XG: Detailtxo bat bakarrik: Errigora bere sorreran, hamar laguneko koadrila ginen, eta erdia baino gehiago jubilatua ziren. Ez ziren bereziki elikadura burujabetzatik zetozenak: bazetozen herrigintza kultura batetik, euskalgintzatik, ikastolen mundutik... **Gaur egun jubilatuek mugimendu eraldatzaileetan, iraultzan edo askapen prozesuan egiten duten ekarpena nabarmentzekoa da.**

EB: Gure kasuan ere, nahiz eta soldata ez jaso, badaukagu gure burua auto-esplotatzeko joera hori. Askotan konpromisoagatik, edo gurean baratzaren kasuan, "ai, hil egingo da bestela!" edo "ez dakit zenbat ordu sartu ditugunez, ezin dugu hemen utzi!". Azkenean, askotan kostatu egiten zaigu muga jartzea, jakitea zein punturaino nagoen zerbaitegite nahi dudalako eta honetan sinesten dudalako edo... **Askotan soldatapeko lanetik kritikatzeko dugun hori gurera ekartzen dugu.**

AP: Zaila da hainbeste motibatzen zaituen gauza batetik desatxikitzea. Auto-esplotazioaren kontzeptua zer den ere planteatu beharko genuke, ezta?

Proiektuan elikadura burujabetza bakarrik lantzen duzue, ala bestelako zehar-lerro edo ildo batzuk dituzue? Bestela esanda, elikadura ereduaren aldaketa lantzen duzue, edo eredu aldaketa orokorrean?

HA: Errekalear proiektuaren oinarria autogestioa izango litzateke. Nik ulertzen dudan moduan, gutxienez, gure bizitzaren jabetasuna da helburua, gu geu ahalik eta zentzu gehienetan independenteak izatea. Bai baratzari dagokionez, bai etxe baten eraikuntzari dagokionez, azpiegiturazko oinarriko ezagutzak ikasteari dagokionez... ahalik eta gehien ezagutzea gure bizitzaren gain erabakitzea. Azken batean, lehen aipatzen genituen supermerkatuek, etab. saltzen diguten askatasuna dependentsia bat sortzea da.

XG: Azkenean, nik uste, ekimen gehienek gai tronkal bat daukatela, baina zeharka gauza asko ukitzen dira.

AP: Hori da! Ezin da elikadura burujabetza beste gauzetatik banandu.

XG: Errigoraren kasuan, adibidez, eus-

kara, elikadura burujabetza eta auzolana dira ardatzak, baina... **norekin topatzen zara bidean? Ba, mundu hau aldatu nahi duten sektoreekin aurkitzen zara.** Esan nahi dut, burujabetza energetikoaren inguruan lanean dabiltzanak, guk egiten dugunarengandik oso urrun ez dabilta! Etorkizunean gustatuko litzateke sortzen ari garen komunitate hori transbertsala izatea, eta ekoizleek, esaterako, beste urrats batzuk ematea... Ba beraien enpresan Goiener-en bazkidetu eta energia hortik hartzea, edo gure artean banka etikaren bidez funtzionatzen hastea. Aukera asko zabaltzen dira.

AP: Bai, ni bat nator zurekin. Azken batean, elikadura burujabetza proiektu baten oinarria izan daiteke, baina **erlaldaketa sozialaren erpin bat da, eta erpin batetik tira egiten duzunean, ezinbestean eramatzen zaitu beste denak aztertzerara.** Gero proiektu moduan ahalmena eduki daitekeen? *Ereindajaren* kasuan, elikadura burujabetzatik haragoko planteamendu integralak egitea, eraldaketa sozialaren inguruan? Ba gaur-gaurkoz agian ez, ez? Baina nik uste eraman egiten zaituela munduaren, komunitatearen, bizi-ereduaren planteamendu integral batera.

Orain arte egin duzuen bidea ikusita, Euskal Herria elikadurari dagokionez benetan burujabe izan daitekeela uste duzue? Ze urrats eman eta ze aldaketa egitea lortu beharko genuke horretarako?

EB: Gu ur handitan sartuko gara! Animatzeko zaituztegu guraso ez izatera... Egia esan, elikadura burujabetza bidegarri izateko ez dago horrenbesteko baliabide ez nahikoa ekoizle, hainbeste pertsona sostengatzeko edo asetzeko. Produkzio masibo horretatik atera nahi badugu, ezinbestekoa da populazioa jais-tea eta horrekin apurtzea.

AP: Baina populazioa handiagoa zen orain dela 100 urte, eta gu burujabeagoak ginen elikadura aldetik, ez dakit ba nik... Nik uste zerikusit handiagoa duela zer egin



Errigora Euskal Herria oinarri eta elkarlana lanabes dituen ekimen herritarra da, 2012an Zazpiak Bat Harreman Sarearen eta Ikastolen Elkartearen elkarlanetik sortu eta bide propioa hasi zuena.. Nafarroa hegoaldea du ardatz eta "euskara ofiziala ez den zonaldean" eragin nahi du, eremu horretakoak propio diren produktuei Euskal Herrian bidea emanaz, euskaratik, euskararako eta euskaraz. Norabide horretan, gero eta zabalagoa den lagunarte batek ematen dio gorputza ekimenari; ilusioz eta anbizioz ari den herritar, nekazari, euskaltzale, ekoizle eta kontsumitzaileez osotutako sare anitz batek. Gure txikitasunetik elkarlan handi bat gauzatu nahi dugu Nafarroak Euskal Herria behar duelako eta Euskal Herriak Nafarroa.



dugun gure lanarekin. Euskal Herriak bizi izan duen industrializazioak baditu gauza on asko, baina gauza txar asko ere bai. Debagoienaren kasuan, **landa eremua erabat suntsituta dago**. Ekoizleek masiboki ekoitzi nahiko balute ere, ezingo lukete, inguruak berak ez lukeelako ahalbidetuko. Administrazio publikotik ere bultzada bat behar da, ekoizleek ezin dutelako duin bizi euren lana eta ekoizpena. Gure kasuan, ekoizle askok konbinatzen dute lehen sektorea kooperatibako lanarekin, ez dielako bizitzeko ematen. Eta hori ez da Ereindajan-ek bultzatu nahiko lukeen eredua, ezta? Lehen sektorearen biziberritzea nahiko genuke...

XG: Ekoizpen planteamendua ere aldatu behar da: gaur egun Euskal Herrian kontsumitzen denaren ehuneko oso baxua ekoizten da. Badago bide bat burujabeago izateko, hau da, aukera gehiago dago bertan ekoiztu eta bertakoa jateko. Gainera horrek **gure ekonomia eraldatzen izugarri lagundu dezake**. Hor badago ibilbide luze bat, baina ez naiz auzartzen esatera erabat burujabeak izango

ginatekeen ala ez, horretarako kontsumo ohiturak guztiz aldatu behar dira.

AA: Eta ekoizpena dibertsifikatuagoa izatea, ezta? Azken hamarkadetan asko bultzatu izan dira monolaborantzak. Lehen ekoizpen eredua dibertsifikatuagoa zen, eta baserrian animaliak eta sasoiaren arabera barazki desberdinak zenituen. Azken batean, monolaborantzekin hemengo merkatua ez dela nahikoa eta kanpora eraman behar dela ekoizten den guztia. Gakoa hor dago: lehen sektorea bultzatzea eta ekoizpen dibertsifikatuago bat egitea.

EB: Beste gai korapilatsu bat! Lehen esan duzu landa eremua suntsituta dagoela, industrializazioarengatik, edo pinudiak jarri direlako edo dena delakoa... Kontuan hartzekoa da animaliak izan eta produzitzeak zer suposatzen duen landa eremurako. Zer suposatzen duen animaliak izateak eta lurra horri eskainita, zeri ezin diogun eskaini.

AP: Bat nator zurekin, baina hori estu-

estu lotuta dago jaten dugun okela kopurua ikaragarriarekin.

AA: Baina beharrezkoak dira abereak, biodibertsitatea zaintzen dute eta.

EB: Bai, noski, baina ez gara zertan izan gu euren jabe horretarako.

AA: Beste eztabaida baten sartzen gara hor!

AP: Egia da Aramaio hain dela berdea, animaliak daudelako larreetan, ez baratzeak daudelako. Baina, aldi berean, konpartitzen dut animaliak hezteak, erosteak... erantzuten diola erabat anormalak diren kontsumo ohitura batzuei. Ez dakit nondik tiraka hasten den gurpil horren aldaketa, nondik egin beharko litzatekeen. Uste dut kontsumitzaileek esateko asko dutela hor. **Luxu bat da produktu batzuk egunero mahai gainean edukitzea**. Lehen Eneritzek esan duena asko gustatu zait, ze nahasmen daukagun luxua zer den eta zer ez: *Bimbo* ogia euro bategatik erostea ez da luxua eta arrautza ekologikoak 4 eurotan edukitzea bai, ezta? *Bimbo* ogia erostea luxua izan beharko litzatekeen! Produktu elaboratu horiek egunero daukagu mahaian eta hain prezio merketan...

XG: Eta sartzen bagara zerk elikatzen duen eta zerk ez...! Gaur egun, gizarte kapitalistan, Euskal Herrian, jaten denaren ehuneko... ez naiz auzartzen portzentaje bat esatera, ez da janaria, gutxi elikatzen du!

Arratsalde osoa jarrai genezakeen... baina hortxe utzi genuen! Oso gai eta interesgarriak izan ditugu hizpide solasaldian zehar, orain norberak bere ondorioak atera eta erabakiak ditu hartzeko. Argi geratu da eta: **gure kontsumo ohituren aldaketa da erosketagurdi kapitalismoaren karriletik atera eta burujabetzaren norabidean jartzeko palanka.** ■



LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKUKO HITZA | CC BY NC ND

Leo Belaustegi Alberdi > LAB arrantza federazioko kide ohia

Arrantza jasangarria, kontsumo arduratsua

Ozeanoak eta arrantza baliabideen erazketa kostaldeko biztanleen proteina iturri izan dira mendeetan zehar. Bizkaiko Golkoa eta Euskal Herriko itsasbazterra ez dira egoera honen salbuespenak izan. Mendeetan zehar, euskal ontziteriak espezie desberdinen ustiapena gauzatu du eta hauek izan dira bertako biztanleen oinarritzko eligaia.

Lehengomendeko 40ko hamarkadara arte, arrantza baliabideen kudeaketa inpaktu baxuko teknika artisauen bidez egiten zen, biodibertsitatearekin armonian, eta arrantzatutako espezieak itsasbazterretik gertu kontsumitzen ziren gehienbat. Hamarkada honetatik aurrera, gero eta arte eta ontziteri handiago zein prestatuagoen bidez baliabide hauen kudeaketaren industrializazioak, baita garraioaren eta hotzaren erabilerak ere, itsasotik ateratako produktuak planetako txoko

LEO BELAUSTEGI ALBERDI
(Mutriku, 1950). Egun erretiratu baina beti mugimenduan, itsasoa bertatik bertara ezagutu izan du 30 urte baino gehiagoz. Sektorearen etorkizun ziurgabearekiko kontzientziak eraman izan du “Ondarroa 12 milia” plataforma bezalako mugimenduetan parte hartzera eta LAB-en Arrantza federazioko arduraduna izan da 15 urtetik gora.

guztietan merkaturatzea ahalbidetu zuen. Baina eredu intentsibo eta batere hautatzaile hau, kontrolaezina izateaz gain, Ozeano guztietako arrantza-guneak esplotazio jasanezin baten ondorioz hustea eragiten ari da.

Espezieen biomasa galera errealitatea da gaur egun (Ipar Atlantikoko arrain espezieen %41 eta Mediterraneoko %93 gain-esplotatuta daude). EB-ren arrantza politikak zientzialarien gomendioen %41 gainetik dauden arantza-kuotak banatzen ditu.

Baina baliabideen erazketa arduragabea ez da gure Ozeanoen suntsiketaren eragile bakarra: plastikoen ondoriozko kutsadura, pestizidak eta uren beroketa ere egoera hau ahalbidetzen ari dira. Epe ertainean kontzientziazten ez bagara, kalteak atzeraeragin ezin izango dira. Gaur egun ekosistema eta itsasoetako habitata suntsitzen ari gara, eta ehizatutako arrainak ondoren guk irensten dugun mikro-plastikoz zeharo kutsatuta daude.

Gure esku dago aberastasun iturri

honen etorkizuna. Egoerarekiko kontzientzia hartu eta itsasoarekiko gure jarrerak aldatu behar ditugu, ez dira gure hondakinak pilatzeko zabortegiak eta.

Bestalde, arrantza politika arduratsua premiazkoa da. Baliabideen kudeaketa sostengarria lehenetsi behar da teknika eta flota artisauen, eta posible den heinean, publikoen bidez. Euren errentagarritasunari bakarrik begiraten dioten eskrupulu gabeko armadoreen esku dauden arrantza-eskubideen bitartez, stock-en kudeaketa sostengarria ez da bideragarria.

Baliabideen kudeaketa ekosistemen eta zientzialarien aholkuen arteko orekan oinarritu behar da. Banatzen diren TAC-ak (Totaux Admissibles de Captures frantsesez, eta Total Admissible de Capturas gaztelaniaz) gutxieneko tamainak eta espeziaren biomasa aintzat hartuta aztertu behar dira, eta arrantza kuota hauek ezin dira etengabe politikari eta lobby handien aldetik zalantzan jarriak izan. Arrantza teknikak eta euren erabilpenak ezin du ekosistema arriskuan jarri eta Bizkaiko Golkoan


ere Babestutako Itsas Gunea ezarri behar da, ehunka espeziaren errunaldi, errekrutatze eta haztegia baita, bertako mendi-hegal, korronte, elikagaiak, etab. direla eta, Cap Betroneko Fosak erakusten duen bezala.

Urteak daramatza FAOk egiten ari den baliabide naturalen xahuketaz ohartarazten. Ipar Atlantikoan bakarrik, urtero 1.700.000 Tm arrain itzultzen dira itsasora, gehienak hilik (deskarteak), gure jangela publikoetan jatorri eta kalitate zalantzarrikako produktuak kontsumitzen diren bitartean.

Gehienezko Errendimendu Jasangarri baten arabera arrantzatutako espezieen merkaturatzea eta kontsumoa ezinbestekoa da, eta lan hau Kofradiei dagokie, arrantzaleen zerbitzura dauden instituzio publikoak, zeinetan azpiegitura egoki baten bidez prestaketa, garbiketa, mozketa, oraketa, kontserbak, etab. egiteko sare bat ahalbidetu daitekeen. Jangelak eta merkatuak horni ditzaketen produktuak, eta jarduera horren mozkinek zuzenean arrantzalearengan eragin. Bitartekarien desagerpena eta

arrantzatik kontsumora arte kudeaketa publikoa ere ezinbestekoak dira, gure arrantza-guneak eta arrantza sektorea, antzina aberastasun ekonomiko eta kultural handiaren eragile, gure portuetatik desagertu ez daitezen, eta gure komunitateak aldarrikatzen duen elikadura burujabetza ahalbidetzeko.

Era berean, enplegu egonkortasuna eragingo luke eta arrantza kolektiboarentzat etorkizunerako alternatiba ekonomiko bideragarria izango litzateke, egun lehengo mende erdiari erantzuten dioten lan harremanetan murgildua eta kondenatua, zeinetan ez diren gutxieneko baldintzak betetzen ez segurtasunari, ez deskantsuei, ez soldatei... dagokionez. Azken hamarkadetan, gure portuetako ontziteriaren %87 desagertu da, eta berarekin lanpostuak. Jarduera honek gero eta gehiago aldentzen gaitu fisikoki gure inguru familiar, afektibo, kulturaletik... Ondorioz, ontziteriaren galera eta belaunaldi errelebo gabezia errealitatea dira Euskal Herriko arrantza sektorean, eta etorkizuna galdera ikur handi bat. ■



Iolanda Formoso Antizar > LABen Jangelen Batzordeko kidea

Eskoletako jangelak: elikadura burujabetza sustatzeko espazio eta tresna

Elikadura burujabetzaren eta jangelen gaineko artikulu honetan pentsatzean, lehen urratsa oso ariketa sinplea egitea izan zen: bi kontzeptu horiek elkarrekin interneten sartu eta "enter" saka-tzea. Emaita ugari agertu ziren, elikadura burujabetza landu eta eskoletako jangelak berau lortzeko tresna bezala ulertzen dituzten mugimendu sozialak asko dira eta. Hau ez da kasualitatea: **eskoletako jangelak elikadura burujabetza landu eta sustatzeko espazio ezin egokiagoak dira**, bertan bat egiten baitute justiziak, hezkuntzak, baliabideek, ekonomia zirkularrak, zaborren kudeaketak... Jangeletan lan daitezkeen kontzeptuak denak ala denak, eta praktikara eramanda, eredu sozialaren aldaketa bideragarri egiten dutenak.

Esan dezakegu, beraz, argi geratzen dela eskoletako jangelak eraldaketa sustatzeko espazio idealak direla. Aldaketarako tresna bihur daitezzen nola lortu aztertuko dugu orain.

Hasiera on bat da espazio hau ikasgela bezala ulertzea, **hezkuntza proiektuaren eta curriculum-aren zati bat gehiago bezala bizitzea**. Jangelek zerbitzu osagarri bezala tratatuak izateari utzi behar diote, ez baitira ez zerbitzua, ez osagarria: hezkuntza zentroaren baitako espazio bat gehiago dira (#jantokitik jangelara). Beraz, heziketa zentroetan haiekiko ematen den zatiketarekin bukatu behar dugu: **gure ikasleriak eskola orduen heren bat igarotzen du jangelan**.

Gurea dena hurbildu behar dugu espazio hauetara, gu geu. Gure herriko elikagaiak zeintzuk diren ikasi, sasoikoak zeintzuk diren, nola ereiten diren, nola jaso, nola eraldatu.

IOLANDA FORMOSO ANTIZAR (Besançon, 1963) Hezkuntza Saileko sukaldaria da. Ordezari sindikala eta LAB-en Jangelen Batzordeko kidea da.



LAB CC-BY-SA

Elikatzen gaituzten pertsonak ezagutu: nekazariak, arrantzaleak, bertako dendak. Ikastetxeetara hurbil daitezzen, gure bizitzaren, herriaren, jendartearen parte dira eta. Baina sakon dezagun euren guztien lan baldintzetan ere, baita euren lanaldi urria ikasleak artatzen ematen duten emakume guzti horienetan ere: nola bizi diren ezagutu, euren bizitza sostengatzeko aurkitzen dituzten zailtasunak, euren aldarrikapenak... bidezkoa da pertsona guztiak enplegu duin bat izatea, euren lanarengatik soldata justu bat.

Era berean, **ezinbestekoa da bertako sukaldeak, in situ daudenak, berreskuratzea**. Hezkuntza jarduera bihurtzea,

hurrei hurbildu eta jango dugunaren gaineko erabakiak hartzeko prozesuetan parte izan daitezzen. Bestela esanda, euren burujabetza propioaren erabilera egikaritu dezaten: ikastetxe bat, sukalde bat (#ikastetxe1sukalde1).

Aldaketa hau ezingo da aliantzen eraikuntza gabe gauzatu, guztion apustu izan behar da: sendiena, ikasleena, ikastetxeko langileena, ekoizleena, arrantzaleena, herriarena, udalarena, administrazioena... denok dugu paper bat garatzeko. Elikadura burujabetzaren bidean urratsak ematen diren jangela ekologikoen alde egitean, ez da eskola elikatze modua bakarrik aldatzen, herriaren eta eskualdearen aspektu sozial zein ekonomikoetan garapena eragiteko ere balio dezake.

Politika publikoetan aldaketa gertatzeko lan egin behar dugu, behetik gora eraiki behar dira, inposaketekin eta gezurrezko parte hartzearekin bukatuz. Hezkuntza politikak berrikusi behar dira, baina baita nekazaritza, arrantza, lan, ingurugiro eta zaborren kudeaketa politikak ere, gugandik, guretzako eraiki (#hemen bizi,hemen erabaki).

Ezin dugu begi-bistatik galdu **neoliberalismoa ere elikadura sistema bereganatzeko borroka dabilela, eta beraz, baita eskoletako jangelak ere**, horrela negozio hutsean, iruzurrean, bihurtuz, eta politika publikoak euren eredu basatiarena birproduktiorako baliatuz. Multinazionalak, alderdi politiko batzuen konplizitatearekin, ekoizpenetik eta eraldaketatik merkaturara, kate osoa bereganatzen ari dira. Hortik gure eguneroko kontsumo ohiturekiko erabakien garrantzia: erabaki bat, bozka bat (#aukeratzea bozkatzea da).

Ondorioz, esan dezakegu elikadura burujabetza lortzea gure erabakietan, parte hartzean eta ekintzetan burujabetza berreskuratze pasatzen dela (#jan gelak: gure eredu sortuz). ■

Maite Goienetxe > LABeko Laborantza Saileko kide ohia

“Nutella” edo elikadura-autonomia sendotzeko aukera global beharra

Duela zenbait egun, Frantziako hipermerkatu marka batek eskaintza berezi bat egin zuen: 950 gramoko Nutella ontzia 1,41€-tan eros zitekeen, hots, usaian baino %70 merkeago. Ehunka pertsonak promozio horretaz baliatu nahi izan dute, eta jazarraldiak gertatu dira jendeak lehenetan heldu nahi baitzuen ahal bezainbat ontzi hartzeko. Zer pentsa horretaz? Lehen minutuetan ukan dudan lehen irakurketa izan da horrelako orgia bat ez nuela batere ulertzen: hori dena azukrez eta palma olioz bete ontzi batentzat? Ez naute sekula engainatuko; janari biologikoa jaten dut, lekukoa, baserrikoa; hots, beste elikadura mota baten hautua egin dut... Eta gogoetan egonik, ohartu naiz jazarraldi horien gibelean pertsonak bazirela, haur ttipi (eta handi) batzuen zoriona egiten duen produktu ezagun bat erosi nahi zuten pertsonak. Pertsona horiek beherapen batez baliatu dira haien familiako batzuei produktua gustatzen baitzaie. Produktu azukreztatua eta merkea da: milaka kontsumitzaileen gogoa asetzeko osagai guziak bilduak ziren, beraz. Baina irakurketa sozialago bat ere egiteko ekaia bada afera horretan.

Alabaina, 2016ko azterketa batek (Le portail des statistiques) erakusten du 1.000€ko erdiko lansari batentzat, 180€ baizik ez direla elikadurarentzat balia-tzen. Ratio hori hautua ote da? Familia egoera zehatz batzuk aipa genitzake bi egoerei (hautua / ez hautua) arrazoi emateko.

Hemen auzia lansari apalez eta horren ondorio den gastuen (eta bizimoldeen) hautuaz da, beraz, lekuko eta kalitatezko



LAB CC-BY-SA

MAITE GOIENETXE (Donibane Garazi, 1976). Laboraria da eta LABeko Laborantza Sailean dihardu urte luzez. Egun Lohitzune-Oihergin bizi da.

elikadurari ematen zaion garrantziaz (ala ez), erosketak bestela egiteko aukerez, bakoitzaren aurrekontu-lehentasunez, palma olio monolaborantza intentsiboak egin kalteez... Hots, gauzak zinez dudan ezartzea da kontua, eta elikadura-usaiak aldatzeko prozesu sakona eramatea.

Beste zerbitu ere bada auzitan produktu azukreztatuei buruz. Zientzia-komunitatea ez da aho batez ari, baina eztabaida abiatua da jakiteko azukreak (bereziki azukre zuria neurri handian) kasu batzuetan mendekotasuna eragin dezakeen. Ez naiz alor zientifikoan sartzeraz menturatuko, baina ohar gaitzeko jan txarraren produktu nagusiak azukre zuriz biziki aberats direla.

Aipatu eskaintza bereziak sortu jazarraldiak berriz ere eredu soziala auzitan ezarri du (lansari egokien zaintzea), baita elikadura eredua ere (zerk eman lezake hurrei ogi eta Nutellak bezainbat plazer?), baita jendarteek alternatibak garatzeko plantan ezarri baliabideak ere, eta laborarien eta langile-soldatapekoen arteko zubiak, etab.

Kontsumitzaileek sanoki jan dezaten eta laborariak haien lanaz duintasunez bizi daitezten, lekuko eta kalitatezko elikadura mantendu behar da eta horretarako aukera franko bada. Hala nola, urte guzietan ostiralarekin Lurramara heldu diren 3.000 haurrak; kalitatezko (AB, Idoki, AOC... lana egiten duten ehunka euskal laborariak, Iparraldeko 25 AMAPk (1.000 familia), Hegoaldeko kontsumitzaile-kooperatibak, hazkurri emaile diren laborantza-lurrak mantentzeko lanean ari diren egiturak (bereziki Lurzaindia), etab. Garrantzitsua da elkarlana sendotzea langileen, soldatapekoen eta enplegu eskatzaileen artean. Azkenean, palma olioz egin produktu azukreztatuek eta merkeak (omen), zinezko plazerak baino gehiago, miseria eta ondorio makurrak sortzen ditu. ■

